

KONTUZ LANEAN



ZORITXARREKO EZBEHARRAK

LAN ISTRIPUEZ MEDIKU, SINDIKATU, NAGUSI ETA LANGILEEKIN

MUSIKA ▶ Jose Luis Franzesenaren erretiroa





ONDO PASATU FESTAK



Oporrak



Iritsi dira oporrak. Bidaia antolatuetan joango dira batzuk. Beste batzuk euren kontura.

Aspaldi erabakiko zuten batzuek zer egin. Beste batzuek azken orduan. Asko zer egin ez dakitela azken ordura arte.

Ni planez beteta izaten naiz. Planak neuk egitea atsegin dut, ia planak betetzea beste. Egiten ditudan planen laurdena baino ez dut burutzen, baina gustura, hala ere, laurden horrekin.

Lagunek aipatu izan didate planak egitea lo-

tura dela, gero bete egin behar direlako. Niretzat aukerak dira, egin nahi dudaren aukera ezberdinak. Ez naiz sekula geratuko zer egin jakin gabe!

Batzuetan lehentasunak ipintzea kostatzen zait, guztiak batera ezin direlako egin. Eta lehentasunetan saninazioak azkenetakoak dira.

Azkenaldian aldatzen ari baldin badira ere, saninazioak prozesioak, zezenketak eta umeentzako barrakak besterik ez dira. Ikusle-entzule mailara mugatzen da ia erabat jendearen

parte-hartzea. Kanpotarrentzat eginak direla dirudi, nuntzio, gotzain, lehendakari eta 'ño-ñostiar' zezenzaleei azpeitiarren itxurakeriazko izen ona erakusteko.

Edozein irteera da saninazioetan geratzea baino hobea. Edonora joan eta ibilbide bat egiten saiatuko naiz. Eta gero kanpora, herrialde berriak ezagutzera.

Hori bai, denoi ondo pasatzea opa dizuet. Baita saninazioetako prozesioetan disfrutatzeko gai zaretenoi ere.

uztarria▶

UZTARRIAREN DATUAK ▶

Argitaratzailea. Uztarrria Azpeitiko

Kultur Koordinakundea

Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)

Telefono eta fax zenbakia.
943 15 03 58

Posta elektronikoa.

uztarria@topagunea.com

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 87.a (2007ko abuztua)

Urtea. IX.a (1999ko azaroan sortua)

Maiztasuna. Hilabetekaria

Web orria. www.uztarria.com

Diseinua. EREGI

Publizitatea.

▶ 699 64 66 01

▶ uztarrria@uztarria.com

Bazkidetza-Harpidetza. 15 03 58

Tirada. 2.500 ale

Inprimategia. Leitzaran Grafikak

Azaleko muntaia. Leire Larrañaga

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik



[u-iritzia]

08 Inkesta. Herriko txikiek oporretan zer egiten duten galdezka ibili da Uztarrria: bizikletan, igerilekura, hondartzara...


09 Zer dio? Oihane Iparragirre Gaztetxeko Jai Batzordeko kideak festa parte-hartzaileen alde idatzi du.

[u-mamia]

14 Enpresa. Mikel Uribetxerriak eta Mikel Aguadok etxetik egiten dute lan. Komunikazio eta publizitate enpresa dute.

16 Klik. Mikel Arrietak hogei urte daramatza entzierroan parte hartzen.

20 Musika. Jose Luis Franzesenari elkarriketa bere agurrean.



[u-jakiteko]

36 Pilota. Aspe enpresak Mikel Goñi Azpeitira jokatzera ekarri nahi du saninazioetan. Ikusmin handia sortzen du hark.

[u-euskara]

48 Normalizazioa. Uztarriak eta Kontseiluak Udolari berriro elkarrekin aritzeko dei egin diote. 2005etik etenda dago lankidetzan.



UZTARRIA AZPEITIKO HERRI
ALDIZKARIAREN LAGUNTZAILEAK ▶
(erakunde publikoak)





Enbido ▶



Koldo Aldalur

Inkomunikazioa

Komunikazio garaian gaudela diote baina, niri behintzat, gure gizartea inkomunikazioaren erreinua bihurtu dela iruditzen zait.

Ez dakit gure ingurukoei zerbait esan nahi diegun eta ezin dugun, ezer esateko premiarik ez dugun edo, besterik gabe, esateko ezer ez dugun.

Dakidana da komunikazio tresna orok, adierazi nahi den hori oztopatzen duela, hitza etsai bihurtu daitekeela, baina behar dugula. Agian, komunikazio garbia eskaerarik gabeko begiradan edo eskatu gabeko laztan batean bakarrik topa daiteke, baina hitzaren herriko biztanleak gara.

► **KOMUNIKAZIO EZINTASUNA.** Gainerakoan, eguneroko ia edozein egoera dago komunikazio ezintasunean blai eginda. Etxekoandreak ez du bizimodu hau gustuko baina senarrarekin garbi hitz egiteko indarrak ezin du atera eta, urteak korrika doazela ohartzean, jendartean bakarrik ez ote dagoen pentsatzen jarri da. Bada zerbait.

Bitartean, milaka kilometrorra, euren gelatan haurrak play station-aren barruan sartuta daude. Alferrik da haiei ezer esatea. Ez dute entzuten, ez dute ulertzen, nola norbaitek zerbait esan diezaiekeen Ronaldinhok baloia area barruan duenean edo, oraindik, zientoka bat martxan falta direnean akabatzeke.

Inkomunikazio ikaragarria komunikabideetan. Albiste bera lau egunkaritan ikusi duen irakurleak ez daki gose greban dagoena beste irtenbiderik utzi ez diotelako dagoen oheari lotuta, edo aspertuta zegoelako erabaki zuen bere bizia arriskuan jartzea oraindik norbait dela erakusteko, edo egia den gauetan egundoko afariak egiten dituela eta gero, ezer gertatu ez balitz bezala, andregaiaren altzoan lo goxoan murgiltzen den. "Auskalo!", pentsatu du egunkariak bere tokian uzten zituen bitartean. Zertarako saiatu egia bilatzen?

Komunikazio arazoa egunero jasotzen dugu itzulitako informazio uholdean. Noren esku dago urrutitik, eta ez hain urrutitik, iristen zaigun informazioa sortu eta, kasuan, itzultzearen ardura?

Ulertu ezina sendagilea eta gaixoaren artean; ez minak dagoenak ez duelako ulertzen nola ez dioten ematen, behingoz, txandarik bere ustez hain beharrezko dituen probak egiteko, aurrean duen sendagileak zer daukan garbi esaten ez diolako baizik, eta duenak zer ondorio ekarriko dizkion. Badirudi arazoa sendagilearena dela eta ez gaixoarena. Duintasuna ere ukatzen badiote, behintzat, gaixotasunaren berri bere osotasunean eman diezaiotela.

Komunikazio eza ez haserretzeagatik, politikaz, ikastolaz, zezenketei buruz, kirolaz edo udal berriaz, esate baterako, hitz egiteari uko egin dioten aspaldiko lagunen artean.

Bakardade itogarria zaharrenen artean sumatzen dena, umeak balira bezala hitz egiten diegunean gizartea bezain azkar mugitzeko ahalmena galdu dutelako, edo euren ahotik hitzak inor ez moletatzeko komeni bezain azkar ateratzen ez zaizkienean.

Agian, maitaleak dira elkarri adierazi nahi dioten hura zuzen adierazteko gauza diren bakarrak. Agian, baina horretan ere badut zalantzatxo.

Eta bukatzeko, itxura aldaketak ekarriko dituen egoera berrian, eta inkomunikazioa hain krudela izan ez dadin, eskaera laburra. Udal berriak ez dezala huts egin komunikazio arloan. Herritarrak jakin dezala zergatik hartzen diren, hartzen dituzten erabakiak, zergatik ez diren beste batzuk hartzen, noraino iristen garen herri moduan, eta, zalantzaren bat badute, galde dezatela, herritarron bihotza, duintasuna edo poltsikoa urratzen dituzten gaiak badira, pozik erantzungo diegu-eta.

► **ZEZENKETAK.** Saninazioak gainean ditugunean ez ahaztu bakarren batzuk arratsaldetako aspermena inorekin haserretu gabe pasatzeko beste batzuk hondarra odoleztatu beharko dutela. Zezena, haiena bai inkomunikazioa. Edo ikustera joaten direnena, agian?

HILEKO GALDERA ▶

Eta aurten, nolako txupinazoa izango dugu?

ONDO PASATU SANINAZIOAK!



"Bertan jaio eta hazitako ganadua.
KALITATEKO okela nahi baduzu,
GUREAN aurkituko duzu!"




**Euskal
Okela**
Carne de Vacuno
del País Vasco



soilik baimendutako
harategietan

Beloki
Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 62
AZKOTIA
Jose Artetxe, 21 Tel.: 943 151392
AZPEITIA



bertako okela

HARZUBIA, 26 D
TEL. 81 60 25
ETXEKO 15 00 03
AZPEITIA

**Harategia
Odriozola**

Harategi
Especializatua

Arana Kalea, 14
Urrut.: 943 81 1015



Harategi eta Zerritegia
Euskal Herriko Haragirik Ozenak

San Inazio Kaleko 12an
Urrut. 943 81 14 98



HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA
ETXEKO URDAIKIA

FORU HIBILBIDEA, 4
TFNOA 81 15 94

AZPEITIA



KALITATEZKO
HARAGIA

BUSTINZURIKO ERREBALA, 8
TFNOA.: 943 811671



Olatz Prat

Udaberri ondoren... zer?

Gaur uztailak 11 omen. Kalean 18 gradu zentigradu. Euria. Udako ordutegia heltzeko irrikitan egon naiz hilabeteetan, baina hondartza ez dut oraindik zapaldu, ezta ikusi ere. Soinean barruko kamiseta, nikia, jertsea eta txaketa; hozbera izango naiz, baina... Uztaila omen da eta sinetsi beharko dugu: (1) egutegian hala jartzen duelako; (2) sanferminetako txupinazoa duela egun batzuk izan delako; (3) haurrak oporretan daudelako; (4) lantoki batera deitu eta inoiz ez duzulako lortuko nahi duzun pertsona horrekin hitz egitea –telefonoa hartzen badi-zute, zorionekoa zu–; eta (5) bateko eta besteko jaiak, kontzertuak eta jaialdiak ohi baino sarriago daudelako. Eta eskerrak!

▶ **EGURALDIA HIZPIDE.** Azken egunetan ez dut besterik entzun bazter guztietan. Telebistako eguraldi saioak *rating* historikoetara heltzen ari dira eta meteorologoak zoratu beharrean dabilta, inoiz baino presio handiagoarekin, eguzkiak bihar atera nahiko ote duen ala ez euren menpe egongo balitz bezala. "Igandera arte eguraldi ona", eta ostiral gauean euria. "Gaur arratsalderako garbituko du", eta nire leihoa tanta amorragariz zikintzen ari den euriari so gelditzen naiz beste behin. Gauera-ko eguzkia seguru. Gaixoek –meteorologoez– ez dute errurik. Lasai Edorta Roman, goizero zure hitzen zain egoten jarraituko dut belarriarratiari itsatsita eta, goizero bezala, hitz egiten hasten zaren une berean distraitu egingo naiz eta zer eguraldi egingo duen jakin gabe geldituko naiz, tiranteduna ala manga motza jantzi jakin gabe, zapatak ala txankletak, galtzak alagona... Ez, gonarik ez, hanka zuri hoiekin nora ho! Potinje autobrontzeadoreen fabrikatzaileek egingo dute negozioa gure kontura.

Kezkatzekoa da; niri, behintzat, zer pentsaturik ematen dit. Beldur pixka bat ere bai. Zeharo gaizki egiten ariko gara gauzak, guztia hankaz gora jartzen denean, nire lehengusua –16 urte, sosak nahi– Enparangaineko tomateak oraindik berde daudelako haiek jaso ezinik dagoenean, eta Urre-

txun kaioak agertzen direnean. Kostaldeko herrietan –Zumaian edo Zarautzen, adibidez–, hilabete pasatzeko 1.800 euro ordaindu dituztenekin gogoratzen naiz; disgusto galanta. Iragarkian bezala, hondartzako txiringitoa muntatzera ausartu denarekin; saldu ez diren udako arropak eta datorren neguko moda geldiezin eta beti goiztiarra non sartu ez dakiten dendariekin...

▶ **UDAKO JAIALDIAK.** Baina, tira, badago oraindik salbaziorik. Urtean zehar egin ohi ez ditugun gauzak egiteko paradarik badago, beste gauzen artean, herri jai, kontzertu eta jaialdiez gozatzea, hain zuzen ere. Zerbeza eder batekin Zurriolako petrilean eseri eta itsas kresal atseginak aurpegia laztantzen dizun bitartean jazz doinu erromantikoak entzuten egotea, dantza egitea, abestea, amestea... Bi ordu eta erdiz BECen autobusaren zain egotea, pazientziatz, momentuaz gozatuz eta gora iristea, Kobetamendira, eta zu bezala urduri, alai eta zain dauden 50.000 burutxo ikustea, lehen kitarra kolpearekin oilo larrua jarri zaizula sentitzea, hegan egitea, ilargi bete biribil eta laranja handi haren pareraino.

Eta gero, ilargi horren bestaldeari begiratzen diozu. Uztailak 6 ostirala, San Fermin bezpera. Kontzertuak antolatu dituzte Gaztetxean, Urrestillako taldeak dira Konjuntun Nights zikloaren barruan. Ekipo guztia eraman, muntatu, talde gonbidatua ekarri... hitz gutxitan, egundoko lana hartu, eta 20 ikusle gerturatu dira. Bai, sanferminen errua izan daiteke, baina dauden aukerak aprobeztatzen ez dakien jendea ere bai. Gero ez esan Azpeitian ezer ez dagoenik. Pixka bat berotu naiz, barkatu. Baina amorrua ematen dit. Mutilak, kontzertu mundiala.

▶ **SANINAZIOAK.** Eta, horrela, eguraldiaz eta uda kaskar honi buruz hitz egiten helduko zaizkigu saninazioak ere. Familia bazkariak, barrakak, txosnak, zezenak, prozesioak...; batzuetan lasaitzen nau gauzak, azken finean, hain gaizki ez doazela ikusteak, batzuk txosnez kexatuko direla eta besteak zezenketez; dultzaineroak tinpanoak urratuko dizkigutela beste behin eta, beste behin, berdin izango zaigula; eta aurten, zinez, ez dudala poltsarik aterako parrandara.

Ona omen dator biharko.

HILEKO ESALDIA ▶

Ondo pasau San Inaziyuk! Zein bestela?

gemma kinkilidenda
santiago kalea 10
tel: 943 151865

agirre oparidenda
erdi kale 1
tel: 943 811325

ana mari egaña jantzi denda
santiago kalea 16
tel: 943 813785

gotain lurrindegia
erdi kale 3
tel: 943 814358

natura belardenda
enparan kale 15
tel: 943 150931

azkue jantzi denda
erdi kale 7
tel: 943 811506

urrestilla jantziak
erdi kale 6
tel: 943 811869

iturralde iturgintza
eliz kale 12
tel: 943 811212

torrealday aholkularitza
iberotarren pl 7
tel: 943 150509

furundarena oinetakoak
erdi kale 9
tel: 943 811143

martina isasti jantzi denda
julian elorza 5
tel: 943 812668

jone eta maikar estetika zentrua
julian elorza 5
tel: 943 813898

jostaldi kirolak
erdi kale 16
tel: 943 814623

lidia jantzi denda
erdi kale 17
tel: 943 811264

alde zaharra

Aspetikio
alde zaharreko
merkatarien elkarte

Moxpit & Txilbor ▶ Xanti Rodriguez



Galdetuz ▶

**Oporretan
zaudenean zer
egitea atsegin
duzu gehien?**

UNAI LARRAÑAGA ▶

azpeitiarra



“Frontoi Txikin pilotan ibiltzea gustatzen zait. Arratsaldean lehengusuekin

jolastea atsegin dut; kartetan, batik bat. Mendira ere joaten naiz, Santa Katalinara (Deba)”.

ASIER ARANBARRI ▶

azpeitiarra



“Bidegorrietan bizikletan ibiltzea gustuko dut. Estali gabeko igerilekura edota Zumaia

hondartzara ere joan izan naiz. Batzuetan, pilotan jokatzen dut Betharramdarretan”.

AITZOL ODRIOZOLA ▶

azpeitiarra



“Geuk egindako goitibeherekin hilerriko aldapatik behera jaistea gustatzen zait.

Inguruetan izaten diren rallyak ikustera ere joaten naiz; Urrakikoa, adibidez”.

XABIER AZPILLAGA ▶

azpeitiarra



“Kalera lagunekin ateratzea gustatzen zait. Eguradi onarekin, Zarauzko hondartzara joaten

naiz; surf ikastaroa eginda nago han”.

Hau ▶



Aitor Zinkunegi

Gizon ala borrero?

Uda da, klean zoaz lagunekin, eta ahotik botatzen duzun zerbeza kiratsak egin duzunaz salatzen zaitu. Baina hori baino okerragoa da pentsatzen duzuna emakumeengan: merkantzia ikusten hasi zara lagunekin batera eta, buru lausotuaren aitzakian, edozer egiteko eskubidea aitortu diozu zeure buruari. Jada ezin duzu ulertu ‘ez’, ‘ez’ dela. Animalikeria gehiegi, zuk eta zure lagunak, elkarrekiko konplizitatea agertzen duen irribarre iguingarri horrekin, lordea darizuela...

Klean, eskaparate baten aurrean, emakume bat ikusi duzu negarrez, 60ko gerria duen maniki bati begira; aldi berean, honek emakumeari negar egiten diola iruditu zaizu, preso balego bezala... Baina mozkor bat besterik ez da, pasatuko zaio tonta horri... Zuk aurrera jarraitu duzu, putetxe bat aurkitu arte. Barrura sartzean, merkantzia ona iruditu zaizu, eta egin beharrekoak lasai egitea erabaki ere bai. Ustezko merkantziari, hankartekoak agintzen dizun guztia esan diozu eta eginarazi ere bai... 50 euro ordaintzeak ematen al dizu eskubide hori? Ez, jakina!

Borrero batzuk besterik ez gara, merkantzia ikusten dugu ez dagoen lekuan, inoiz ez dugu ulertu emakume bat ez dela behin ere merkantzia izango, beti izango dela emakume bat... Emakume baldintza hori ez duela galduko, gainera, garai gogorrenetan galdu ez zuelako, inkisizio santuak ere lortu ez zuelako. Emakume batek erresistentziarako gaitasuna du, amatasuna zer den badakielako, baina guk ez dugu inoiz amatasun hori sentituko, ezta horren atzean dagoen guztia ikusiko eta baloratuko ere. Merkantzia ikusi eta sufrimendua sortzen duten borrero nazkagarri batzuk izaten jarraitzen dugu. Jendarte eredu honek hala hezi gaitu eta geuri dagokigu horri buelta ematea, borrero izan nahi ez dugulako!

Apunteak ▶

GORA.

Saninazioetako programa bakarra jaso dute herritarrek etxean aurtengoan, bateratua. Udalak eta Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak urteetako saiakeraren ondoren adostasuna lortu dute.

BEHERA.

Bai, abuztuan, oporrak izanda, geratzen da jendea herrian, baina: kanpoko igerilekuko sarrera bost euro da, Donostiara joateko autobus zerbitzua ohi baino murriztagoa da...



Moto bat Azpeitiko kaleetan.

UZTARRIA

GALDERA.

Film ezagun batek dio bizikletak udarako direla; itxuraz, Azpeitian motoak ere bai. Hara eta hona dabilta batzuk motoetan. Zarataren inguruko udal ordenantza bada. Baina indarrean al da?

Ba al dakizu... ▶

...Santiago Eguna, uztailaren 25a, aurten ez bezala jai eguna izango dela berriz ere 2008an, Eusko Jaurlaritzak hala erabaki duelako eta hala jaso duelako Euskal Autonomi Erkidegoko egutegi ofizialean?

Zer dio? ▶ Oihane Iparragirre (Gaztetxeko Jai Batzordeko kidea)

'Jai herrikoiek, geuriek!'

Urtero bezala, herriko festak ate joka ditugu eta dagoeneko hasi gara lanean. Iaz Gaztetxeko Jai Batzordea eratu zen, eta bere emaitzak eman zituen festetan. Gaztetxeak iaz egin zuen apustuari tinko heldu eta gazteok gure herrian nahi dugun jai eredua aldarrikatu eta herriratzea gatzoz!

Herriko jaietan, azpeitiarrek egina eta azpeitia-rrentzat izango den eskaintza egotea ezinbestekoa da. Herritarrok nazkatuta gaude ekimenetako ikusleak izateaz; geuk antolatutako ekintzetan parte hartu nahi dugu. Herritarrek eta gazteak garen heinean, Gaztetxetik jai herrikoiak, parte-hartzaileak, euskaldunak, parekideak eta aldarrikatzaileak opa dizkiogu herriari. Jai herrikoiak: herritarren nahiei erantzuten dien jai eredua nahi dugu eta urtean zehar herrian egiten dugun bizitza festetan islatu behar da. Jai parte-hartzaileak; denon parte-hartzea bermatu

behar da antolakuntzan, baita ekintzetan ere. Jai euskaldunak: Euskal Herrian bizi gara eta herri egiten gaituzten hizkuntza eta ohiturak erabili behar ditugu. Jai parekideak: emakumeen parte-hartzea bermatuko duen eredua ezarri eta eraso sexista guztiei erantzun behar diegu. Jai aldarrikatzaileak: ezin gara mugatu gauetako eskaintzetara, egunean zehar ere gure aldarriak kaleratu behar ditugu. Euskal preso eta iheslarien egunarekin hasiko gara; herriko jaietan gurean faltako diren lagunekin bat eginez.

Aurtengoan, behingoz, egitarau bakarri iritsi(ko) da herriko etxeetara. Egitarau bateratua dugu oraingoan; egitarau zabal eta plurala. Gaztetxeko Jai Batzordetik dei egiten diogu herri guztiari ekimenetan eta antolakuntzan parte hartzeko. Beharrezkoa da denon esku-hartzea, geureak nahi ditugun jaiak izateko. Ondo pasatu!

Hurrengora arte!

Garai hau iristen denean, denok oporren zain egoten gara eta sarri-tan desiratzen ditugu irakasleen oporrak. Andereño izatea lanbide bat baino gehiago da; bokazioa behar-beharrezkoa da ikasleekin eta gurasoekin lan egiteko. Materia bat erakustea ez da nahikoa, pertsonak ezagutu behar dira eta, ahal den neurrian, bakoitzaren izaera, ahalmenak eta jarrerak kontuan izanda hezi behar dugu.

Sarritan buruko minarekin joaten naiz etxera, bati edo besteari gertatutakoa nola bideratu pentsatuz. Aurreratua den ikasleari nola erantzun? Atzera gelditzen ari denari nola lagundu? Lagunik gabe dagoenari autoestima nola altxatu? Gelara triste etortzen denak zer ote du?

Horiguztia eta gehiago kudeatu behar du irakasle batek, baina horrekin batera ahaztu ezineko une asko daude! Zenbat momentu zoragarri! Nolako poza ematen duen ikasleak lanean gustura daudela ikusi edota zenbait oztupo gainditu dituztela egiaztatzeak! Eta, batez ere, urteak pasatu ondoren zure ikasleak izan direnak kalean guraso bihurtuta topo egin eta "aio, andereño!" esaten dizutenean...

Gaurko honetan andereñoei eta irakasleei eskerrak eman nahi dizkiet. Ondo merezitako oporrak hartu dituzte. Orain lasaitu, pilak kargatu eta datorren irailean berriro indartsu lanera! Irakaskuntza eta politika dira nire bi bokazioak. Etapa desberdinetan batean eta bestean egon izan naiz, eta orain, berriz ere, nire alderdiaren eskutik, Kultura eta Eus-kara Sailaren ardura izango dut Gipuzkoako Foru Aldundian.

Gaurkoa izango da nire idatzia Uztarrarian eta denei, aukera hau eskaini zidatenei eta nire idatziak irakurri dituzuenei, eskerrak emanez agurtu nahi zaituztet. Nagoen tokian egonda ere, beti izango duzue azpeitiar bat zuen zerbitzura. Agur eta hurrengora arte!




◀ Eta beste



Maria Jesus Aranburu



Otsue beltz





ASOCIACION DE COMERCIANTES DEL UROLA MEDIO UROLA ERDIKO MERKATARIEN ELKARTEA

ondo pasatu festak!



ONDO PASATU SANINAZIOAK!

Ildefonso Gurrutxagako dendariak



ILDEFONSO GURRUTXAGA, 6 TEL.: 943 083 083



ILDEFONSO GURRUTXAGA 4 TEL. 943 025 950



Ildefonso Gurrutxaga 3 - Tel.: 943 15 64 20



Etxetresna elektrikoak

Ildefonso Gurrutxaga 3 943 15 76 38



ETXERAKO GAUZAK

Ildefonso Gurrutxaga 5
943 08 03 74 - 943 08 03 88



Elikadura ekologikoa
Gehigarri dietetikoak

Ildefonso Gurrutxaga 1 TEL. 943 08 03 37



Ildefonso Gurrutxaga 7
943815802




fisioterapia zentrua



- Berezotasina lehorreko garbiketan
- Nordikoak, mantak, edredoiak eta gortinen garbiketa berezia

Ildefonso Gurrutxaga, 3 Tel. 943 026 681



Ildefonso Gurrutxaga 8
Tel. 943811664



Ildefonso Gurrutxaga 5
Tel. 943 08 03 64



Omen-aldiak



Igor Aranbarri

Aupa, gizon! Enteratu al haiz?! Joxeparen alaba haurdun omen zagok 17 urte-rekin! Jokinen aita homosexuala omen duk! Inaxitaren biloba ezkondu berri eta banandu egin omen duk! Azpeitiko alkateak zezen korridak kendu behar omen ditik! Frantxixko, hirugarren pisukoa, oso gaizki omen zagok! Margariren alaba drogetan sartuta omen zagok eta, gainera, lanik gabe! (normala). Aramenditarrek herentzia dela-eta haserretu omen dituk!...

Gaur, 'omen' hitza hiru esal-ditik lautan ibiltzen duen kontak-tilua omendu nahi diat. Kafe orduan mahai bueltan protagonista bihurtzeko etxetik presta-

tuta ustezko albiste harrigarria ekartzen duen parasito sozial ezagun horri aipamena egin nahi zioat. Bere arrazoia izango ditik horrela jokatzeko, ume garai gogorra akaso, maitasun falta... Askok omen-zaleak; herri txikietan sortzen diren izakiak direla zioak zenbaiteak. Egia duk, ezin diagu egun guztia geure buruaz hitz egiten jardun. Isilik egotea, beno, gutxiago hitz egitea, aukera bat izan arren inor gutxi hautatzen dik. Inguruko lagunak denok izaten ditiagu ahopean, baina hainbeste... Txertorik ez duten birus informatibo hauena haratago zoak, beti ditek besteen kontu zer edo zer esateko, eta gutxitan izaten duk ezer onik, beste-

en desgrazien bitartez elikatzen direla zirudik batzuetan. Sinestezina, baina egia! Omen-aldia, biblia baino zaharragoko gaitza dela bazakiat, hiru lagun nahikoa direla, baten faltan, beste biak kutsatzeko.

Gertu antzean pare bat istorio bizi izan ditiat eta erreta nagok, bazakiat ez duela erre-mediorik, Kepa, baina barrena hustu nahi nian. Horretarako zeudek lagunak, ezta?

Orain gutxi sanferminetan izan nauk; azer festa! Milaka laguneko zirkoa, dena libre. Alkohola eta beste zenbait sustantzik ere izango zituan tarteko; hori ere ez duk bidea. Baina azer sentsazio ederra lepo atzean sasi epailerik ez izatea.

Azpeitia arrosa



Kepa Urbietta

Igor, maitea! Gehientsuenok zakiagu zurrumbilo baten erdian egotea zer den. Eta kasu batzuetan garrantzirik gabeko kontuak izaten dituk, baina besteetan min ematen ditek. Askok, gainera. Izan ere bazuridik pertsona batzuek besteen bizitzetan sartzea beste lanik ez dutela.

Mundu bat duk Azpeitiko prentsa arrosarena, Igor (beste herrietakoa ezagutzen ez dugulako, seguruenik). Pentsa, zezenketen adibidea diagu berrienetakoa. Udalean alkate berria sartzearekin batera aterazuan Joxin Iriarte delako bat egunkari batean, zezenketak ken zitzaketela esanez. Ondorioa: herrian zezenketen gaia

bolo-bolo. Sokamuturra kendu behar zutela ere entzun nian.

Pentsatzen ibili ninduan kasetari hark ibilitako irizpideak nolakoak izango ote ziren. Hau da, alkate aldatetaren berri ematen zuen albistean zergatik sartu zituen Azpeitiko talde bateko kide baten iritziak. Une hartan, albiste hartan. Zergatik ez hiri galdetu *Literatuzta*-ren itzulera posible baten inguruan? Edo Itsasiko kide bati? Edo musikariei? Interesak. Ondorio horretara iritsi ninduan. Eta halako kasuetan ematen dik min eta nazka zurrumurru batek. Izan litekeek interes pertsonalengatik edo izan litekeek pertsona frustratu bat haizelako, edo konformatu ezina, edo

norbere erruak onartu ezina, edo gustura bizi ez eta bestee-na izorratu nahia. Hainbeste gauza entzuten dituk besteen inguruan... Baina, Igor, geu ere bekatu egindakoak izango gaituk.

Hala ere, poztan nauk aurreneko pausoa eman dugulako: halako jokaerekin onik ez dutela egiten konturatzea. Kontu horretaz ari garela, badiat zalan-tza bat: Egañaneko neskazaharren kontu hori egia ala mito da?

Igor, hik pasatu ondo sanina-ziyuek, ahaztu halako kontuak eta gutxi edan, orduan esaten omen dituk-eta egia-rik biribile-nak. Ondo ibili abuztuan, eta urrira arte!

etxetik lana INTERNETEZ

Mikel Uribetxeberriak publizitate eta komunikazio enpresa dauka, Mikel Aguadorekin batera, biak dira bazkide eta langileak, eta lana, etxetik egiten dute, Internetari esker

▶ Testuak: Enekoitz Esnaola ▶ Argazkiak: Fammilia enpresa



Mikel Uribetxeberria eta Mikel Aguado, Fammilia enpresako bi kideak, bakoitza bere etxean, lanean Internet bidez.

Gure inguruan, behintzat, gutxi egiten dute lan etxetik, gutxi dute etxean enpresa. Mikel Uribetxeberriak (1975) bai, badauka, Mikel Aguadorekin: Fammilia, publizitate eta komunikaziokoa (bi Mike-len 'm'-ak jasotzen ditu izenak).

Aguado tolosarra da, Iruran bizi den arren. Uribetxeberria, berriz,

azpeitiarra da, Azkoitian bizi den arren. Etxean dute bulegoa, eta ordenadorako soinu programa baten bidez komunikatzen dute elkar; kamera txiki baten bidez ere bai, nahi dutenean. Zergatik lan egiteko modu hori? "Eta zergatik eduki enpresaren bulego ohiko horietako bat? Guk nahia-go dugu etxetik lan egitea", dio

Uribetxeberriak. "Izan ere, alde on asko ditu: enpresaren bulegoa erosi edo alokatu beharrik ez daukazu eta dirua aurrezten duzu, bertara kotxez joan beharrik ez daukazu... Gastu horien ordeaz, teknologian inbertitzea erabaki genuen, programa onak izateko, konexio onak lortzeko eta abar. Enpresa bat sortzen duzunean,

lehenengo erronka aurreneko urteetan irautea da, gero hazteko. Guk, ordea, ez ditugu lehen aipatutako gastuak, enpresaren bulegora joan behar izatearen denbora ere ez dugu galtzen, eta horrek malgutasuna eta lasaitasuna ematen dizkigu".

Ameriketako Estatu Batuetan, Ingalaterran eta beste leku

1 ▶



batzuetan gero eta ohikoagoa da etxetik lan egitea zeregin zehatz batzuetan –publizitatean, esaterako–, eta bi Mikelek ere horren aldeko apustua egin dute. “Elkarrren arteko informazio trukaketa etengabea da; ez bakarrik soinu esandakoa, artxiboak ere jasotzen eta bidaltzen gabiltzalako geratu gabe, eta dena ordenatzen egiten dugu, Internetez. Lan-kidea ondoan banu bezala da; gainera, ez dut jaiki beharrik haren lanak-eta ikusteko”.

Ondo doakie horrela. Aurten sortu zuten enpresa eta maiatzean, esaterako, Greenpeacearen lehiaketa bat irabazi zuten.

Aurretik ere ezagutzen zuten elkar Uribetxeberriak eta Aguadok. “Ni Dimensión publicitate agentzian hasi nintzenean, Donostian, bertan ari zen lanean orduan Mikel [Aguado]. Segituan biok talde batean jarri gintuzten, hura sormen lana eginez eta ni grafikoa, arte zuzendari bezala. Halaxe, hiru urte inguruan han”.

▶ PATXIRENA. Patxi

Euskaltelen kanpainako ideia haiena izan zen. Sona handiko kanpaina, duela dozena erdi bat urtekoa. “Hura izan zen arte zuzendari bezala nire aurreneko lana. Ideia lagunarena izan zen, ordea”. Athleticeen kanpainak ere izan zuten oihartzunik –jokalari batzuk biluzik ageri ziren–; hura ere, biek sortutakoa.

Lan horien, beste batzuen eta azken urteetako eskarmentuaren ondorioz, publicitate arloko

Família enpresakoek pasatutako irudiak dira eskubikoak, beraiek egindakoak lehiaketarako eta lanetarako. 1 ▶ Greenpeace.

Klima aldaketaren aurkako kanpaina. 2 ▶ Altzariak.

Sagardotegi mahaia. 3 ▶ Altzariak.

Trainera. 4 ▶ Bastida sukaldeak.

Marka. 5 ▶ LILA. PROstitution NOW!

6 ▶ Belharra (mendi denda).

Posterrak. 7 ▶ DeBolex film ekoiztetxea. Marka.

8 ▶ Ikusimakusi optika. Logoa.

2 ▶



3 ▶




4 ▶



5 ▶

88 bastidasukaldeak



6 ▶



7 ▶



8 ▶

IKUSIMAKUSI

“jende asko” ezagutzen dute, “harreman ugari” daukate, “soinu gela onak-eta” ere ezagutzen dituzte, eta horrek denak “lana erraztu” egiten diete. “Lan asko kanpotik etortzen zaigu”, dio Uribetxeberriak. “Biok ez dugu baliabide askorik, enpresa txikia da gurea baina, zorionez, deitu egiten digute. Geuk lortutako lanak ere baditugu”.

Eroso eta gustura daude etxetik lana eginez, “sormenerako alde onak” dituelako. “Irudi bat lantzeko-edo fruta bat nahi baduzu, hartu egiten duzu. Edo etxean eduki ohi den gauza bat nahi duzula, berdin. Bestela, kalera jaitzen zara zerbait erostera lanerako. Agentzia batean modu finkoan lan egitea tokatu izan zait, eta horrelakoetan ez zara mugitu ere egiten bulegotik, beti ordenadora aurrean zaude. Horrek sormena mugatzen duela uste dut”.

▶ **ZELULAK.** Dena dela, lan egiteko modu horrek “alde txarrak” ere baduela uste du Uribetxeberriak, gertatu izan zaielako bezeroek galdetzea nolatan egiten duten lana etxetik. “Nik uste, ordea, arlo batzuetan hau dela bidea. Pentsa, film bat egiteko badaude produktorak Ameriketako Estatu Batuetan, Indian eta ez dakit non dituztenak egoitzak, Internet bidez muntatzen dituzte filmak eta, haiek horrelako muntaia erraldoia egiten badute, zergatik ez gurea bezalako enpresa batek gutzia Internetez egin?”.

Horretaz gain, Nike bezalako enpresa handiek-eta “komunikazio munduko zelulak” bilatzen dituztela dio. “Agentzia handietan lantaldea aldakorra izaten da, jendea batetik bestera ibiltzen baita. Norberak bere enpresa sortzen duenean, aldiz, langileak denbora gehiagorik egoten dira bertan, eta horrek komunikazio lanak bermatu egiten ditu, dena ez delako hasierako sormen lana egitea, baizik eta gero jarraipena egin behar duzu, produktuak egokitu, eta lan taldea bera bada, hobe”.

Etxean lan

eginda, bulegoa erosi edo alokatu beharrik ez duzu, bidaian ez duzu galtzen denbora...”

MIKEL URIBETXEBERRIA ▶ enpresaria

Uztarriakoa

Azpeitiko kultur eta euskara taldeek eta eragileek 1998ko martxoan Uztarria Kultur Koordinakundea sortu zuten, eta, jakina, logotipoa behar. Mikel Uribetxeberriak berak egin zuen hasierako hura (behekoa). 2002ko urtarrilean ukitu bat eman zion Uztarriak logotipoari.



Euskaltelekin, Kutxarekin, Grenepeacearekin, Nueva Linearekin, Bainetekin eta beste enpresa handi batzuekin egin izan dute lan edo egiten dute, baina bezero txikiak ere jorratzen dituzte. “Garrantzia ematen diegu, gainera”. Azpeitian bertan badute bezeroak. “Hori bai, komunikazioan sinesteko eskatzen diegu, ezagutarazteko produktua. Oraindik entzuten dira, ordea, ‘ilobak egingo dit logotipoa’ eta halakoak”.

Baina nola ulertzen du Familiak komunikazioa? Integrala eta gertukoa. Integrala: ez dira mugatzen bezeroari iragarkiak komunikabideetan egin behar dituztela esatera. Gertukoa: “Etxetik egiten dugu lan baina bezeroekin asetan behin biltzea gustatzen zaigu, zuzenean egoteko haiekin, agentzia handiak ez bezala bitartekaririk gabe. Haien informazio dena jasotzen dugu horrela”.

“Burua nekatzen” dute, batik bat, buruari bueltak eman eta eman jarduten dutelako. Sormen lana baita.


Etxetik egindakoa. ◀

hogei urtean

ENTZIERROAN

Aurten 20. urtez segidan irten du Iruñeko entzierroan Mikel Arrietak (1966). Aurrenekoetan bakanen batean irteten zuen. Orain ia egunero, autoan joanda. Uztailaren 10 eta 12an harekin izan ginen

► Testuak eta argazkiak: Enekoitz Esnaola



6:30. IA 1.500 KILOMETRO.

Sanferminetan egun batean Iruñea ondoan geratu zen Arrieta lo egiten, Uharten, baina beste guztietan autoan joan-etorria egin zuen. 204 kilometroko bidaia egunero. Ia 1.500 kilometro denera aurten. Azkeneko urteetan Bernabe Arangurenekin maiz joan izan da autoan —honek hemezortzi urte daramatza entzierroan irteten—; aurten, ordea, elkarrekin bakarren batean baino ez dira joan. Argazkian, Arrieta Altsasu parean.



5:40. IRTEERA ORDUA.

Goizeko zortzietan hasi ohi da entzierroa Iruñean, zazpiak aldera ixten dute udaltzainek entzierroko ibilbidea eta, beraz, Azpeititik hori baino ordu eta laurden inguru lehenago irten behar autoan. Mikel Arrietak 5:40ean irten ohi du. Argazkian, pilotalekuko parean.



7:00. ERROTXAPEAN APARKATU.



Goizeko zazpitan iritsi ohi da Iruñera, eta Errotxapea auzoan uzten du kotxea, zezenen korralak dauden lekutik ehunen bat metrora. Oinez bost bat minutura dago entzierroaren hasiera, Santo Domingon.

7:25. EGUNKARIEI BEGIRADA.

Aurreko eguneko egunkariei begirada bat botatzeko astia ere izaten da, aurreko entzierroko argazkiak ikusteko. Irudian, Jon Arellano azpeitiarrarekin ageri da, Santo Domingon bertan.




7:10. SANTO DOMINGON ZAIN.

Udaltzainek Udaletxe plazan jartzen dute aurreneko hesia, ibilbidea zikinkeriz eta jendez garbitzeko. Arrieta Santo Domingo hasiera aldera geratzen da, San Ferminen estatua txikia egoten den lekutik 50-70 metro gorago. Betiko jendea izaten du ondoan, eta hitzaspertuan aritzen dira. Argazkian, Arrieta bera, Gonzalo eta Cecilio lagunekin (Fuenlabrada, Espainia); hauek Santo Domingon korritzen dute.



» **7:55. ESTAFETA ERDI ALDERA.**

Estafetan korritu ohi du entzierroa Arrietak. Eta harako bidea hartu behar, garaiz iristeko. Udaltzainek zortziak bost gutxi aldera zabaltzen dute Udaletxe plazan hesia, eta ttipi-ttapa, Estafetara. Argazkian, kale horren hasiera aldera ageri da.

▲ **8:00. KANPAIAK.**

Aurten, aurreko urteetan bezala, uztailaren 10era arte Estafetan ohiko lekuan jarri zen Arrieta: bukaera aldera, Telefonikan ere lasterka egin asmoz. Pare hartan, ordea, “gero eta lehia handiagoa egoten da lasterkalarien artean” eta hurrengo egunetik Estafeta erdian kokatu zen. Argazkian, uztailaren 12an hantxe, zortzietako kanpaiak entzuten zirela.


▲ **8:01. ENTZIERROA HASITA.**

Entzierroko ibilbide barruan nabarmena izaten da zezenak noiz dauden gero eta gertuago: jendearen buila da seinalea; gero eta buila handiagoa, orduan eta gertuago zezenak. Argazkia —uztailaren 12koa— zortziak eta minutu batean ateratakoa da, entzierroa hasia zela dagoeneko. Merkaderes parean zeuden zezenak, eta entzuten zen builarik. Arrietak “oso gustura” bukatu zuen orduan, “zezenak sakabanatuta” iritsi zirelako bere parera eta haien aurrean lasterka egiteko moduan izan zelako.



8:15. IRUÑAZARRARA GOSALTZERA... ETA ENTZIERROA IKUSTERA.

Uztailaren 12ko entzierroa izan da aurten sanferminetako luzeena: sei minutu eta bederatzi segundokoa. Universal zezenak bereak eta bi egin zituen. Arrieta zezen-plazara sartu zen. Handik, Merkaderes kalera, Iruñazarra tabernan gosaltzeko, ohi bezala. Kafesnea, kurasana eta ura. Iruñazarrara gosaltzera ez ezik, ordea, telebistan entzierroaren errepikapena ikustera ere bai. Argazkian, Arellanorekin batera, keinuka, hau irudian ageri baita. Arellanok ere Estafetan korritu zuen uztailaren 12an; hurrengo egunean ere bai —hamabost bat urte daramatza entzierroan parte hartzen—.



8:45. GAZTELU PLAZARA.


Gosaldu, errepikapena ikusi telebistan eta Gaztelu Plazara, argazkien denda batera, aurreko eguneko entzierroko irudi pila ikustera.



9:05. ETXEKOekin HIZKETAN.

Kotxera iritsi eta etxera deia. Bidaia omen diote beldur handiagoa etxeok. 10:30erako han da. Aurten lantokian hiru egun hartu ditu jai. Bestela, arratsalde lanera. ◀

Arrieta, aurreko urte batzuetako entzierroetan



Bernabe Aranguren entzierro batean. Mikel Arrietarekin batera urteetan joan izan da Iruñera.

JOSE LUIS FRANZESENA ▶ musikaria

“Zuzendariaren lana gaizki egindakoa zuzentzea da”

Saninazioak bukatzearekin batera hartuko du erretiroa Jose Luis Franzesena (1942), 22 urtez Azpeitiko Udal Musika Bandako zuzendari aritu ostean. 22 urte hauetan egindako lanaz aritu da Uztarririkin hizketan.

22 urtez aritu zara Azpeitiko Banda zuzentzen. Prest al zaude erretiroa hartzeko?

▶ Testuak: Ion Aranburu ▶ Argazkiak: Ion Aranburu eta Azpeitiko Udal Musika Bandak utzita



Bai, prest nago. Bukatu den aro bat da, eta orain beste gauza batzuk egingo ditut musikarekin lotura dutenak. Hala ere, probatzeko gogoa daukat ezer egin gabe egote hori zer den.

Baina egongo al zara ezer ere egin gabe?

Azkoitiko organoarekin jarraituko dut. Beste ideia batzuk ere badi-tut buruan; organoajotzenikaste-ko eskola, esaterako. Izan ere, or-gano-joleen gabezia dago Azpeit-ian, eta horretarako eskola sor-tzea pentsatzen ari naiz, Musika Eskolarekin elkarlanean. Ez dago

organistarik eta ez da egongo, eskolarik ez bada jartzen. Beste gauza batzuk egingo ditut orain, musika alde bateralaga gabe.

Zure seme Unai izango da zeure ordezkua bandan...

Hala da. Oraingo, bi urterako izendatu dute. Ikusiko dugu hari eta bandari gustatzen zaien edo ez. Udal Musika Bandaren zuzendaritzak hartutako erabakia izan da. Unai laguntzarik behar badu, ni laguntzeko prest egongo naiz, baina nahiago dut beharko ez balu.

Prestatuta al dago Unai?

Oraingo gazteak gu baino hobeto prestatuta daude teknika alde-tik-eta. Zuzentzen ikasi beharko du, eta horretarako ikasketa bat-zuk egin beharko ditu, lehenaz gainerakoak.

Nolakoak izan dira zuzendari aritu zaren urte hauek?

Hasieran banda bera oso txikia zen, eta bi bandotan hautsita ze-goen. Pixka bat egonkortu arte zaila izan zen. Orduan beste banda gazte bat osatu nuen, aparte. Hori integratutakoan, ondo joan zen guztia. Hala ere, hasierako lau urteak gogorrek izan ziren. Lan asko egin behar zen, eta ia hutsetik hasi behar izan nuen. Horrez gain, abesbatza ere eramaten nuen, eta batera egiteko lan asko zen. Duela urte batzuk jendea gehiago sartzen zen bandan; izan ere, herrian akti-bitate gutxiago zegoen orain da-goena baino. Orduan bandan sartzen zirenak egunero-egunero ibiltzen ziren. Orain zailago da bandan gelditzea. Normalean onak gelditzen dira, eta hori ez dakit onerako edo txarrerako den. Jende asko hasi da baina gero utzi egin dute.

Nola hasi zinen bandako zuzendari?

Lehenagotik, komertzial, meka-nikari eta beste hainbat lanetan pa-satu nituen bandako zuzendari hasi aurreko urteak. Orduan ere, ordeza, egiten nituen musikarekin lotura zeukaten lanak. 45 urte ni-tuela hasi nintzen Azpeitiko ban-

Oinordekoa

Jose Luis Franzesenaren seme
Unaik hartuko du Azpeitiko
Udal Musika Bandaren
zuzendaritza saninazioak
pasatu bezain pronto.
Oraingo, bi urterako hartuko
du postua Unaik. 17 urte
zituela hasi zen bandan,
perkusioa jotzen.
Zuzendaritzako ikastaro
batzuk eginda dituen arren,
beste batzuk hartu beharko
ditu orain, lan berrira egokitu
ahal izateko. Azkeneko
boladan perkusiozko
instrumentoak jotzen eta
irakasten ibili da. Pianoa jotzen
ere badaki, eta azkeneko
urteetan Kepa Junkerarekin
eta Ibon Koterorekin aritu da
perkusioa, teklatura eta
txalaparta jotzen.



Unai eta Jose Luis Franzesena.
Aurrenak hartuko dio lekukoa.

“Niregatik izan balitz, danborradako talde guztien piezak honezkero eginda nituen”

“Zarauzko eskola profesionalean jarri zidaten ‘Schubert’ ezizena; gaztetan haren antza omen nuen”

dako zuzendari, eta bandan seku-la ibili gabe nengoen. Jose Mari Bastida zen alkatea, Kepa Ibarza-bal alkateordea, eta haiek eskaini zidaten, Valentziako feria batean nengoela. Eskaini zidatenean, postua betetzeko arazoak omen zituzten, eta onartzea erabaki nuen. Nik neuk baneukan musika-ria izateko gogoa eta zaletasuna, baina aukera hura izandakoan hasi nintzen benetan musikako ikasketak egiten, kontserbatorioan.

Zertan datza zuzendari lanak?

Zuzendari batek egiten duena, beste guztiak gaizki egiten dute-na zuzentzea da. Abiadurak kon-trolatu eta hori guztia. Azken ba-tean, armonizatu egin behar da guztia. Beste alde batetik, entse-guak eta gainerako guztia presta-tu behar dira. Gauzak nolakoak nahi dituzun garbi eduki behar da eta horren bila joan behar da gero. Hau horrela nahi dut, edo beste hau ikasi egin behar dela esan eta antzekoak egin behar dira.

Ondo egitea zaila al da?

Beste lanak bezalakoa da. Hasi nintzenean, baxuak eta altuak ba-karrik bereizten nituen. Orain ez dut ezer entzuten, notak beraiek etortzen dira. Hor gaizki egin du, zergatik egin du gaizki? Horrela da dena. Azken batean, prozesu bat da, akatsak zuzenduz egiten den lana da.

Kontzertu batean baten bat ze-haro gaizki ari bada egiten, zer egiten duzu?

Isilduarazi egiten dut, disimulua-rekin, jendearen aurrean horrela-koak egitea ez baitzait gustatzen. Baina normalean ez dira horrela-koak gertatzen, kalera ateratzera-ko guztiak ondo entseatuta joa-ten dira-eta. Kontuan hartu behar da ez garela profesionalak. Ondo jotzeko bizitza guztian jardun behar da.

Saninazioak-eta nola bizi ditu-zue bandakoek?

Guk ez dugu besteek izaten di-tuzten festa horiek. Kontuan hartu 9:00etarako hasten garela, eta ▶





Eliz kaletik askotan pasatu da banda zuzentzen.



1994an, bandako beste kideekin.



Kioskoan ere ibili izan da zuzendari lanetan.

zezenketak bukatzen direnean amaitzen dugula guk ere. Egun guztia horrela pasatzen dugu, abesti desberdinak jotzen. Nik neuk azkeneko egunean egiten dut parranda. Izan ere, behar bezala ez bagaude, notak ere horrela ateratzen dira. Egun horietan festa giroan ezin dugula ibili garbi daukagu, baina horretarako urteko beste egun batzuk hartzen ditugu.

Sansebastianetarako ere makina bat pieza egin dituzu.

Batzuk bai. Niregatik izan balitz, danborradako talde guztientzat honezkero guztiak eginda nituen. Baina nire asmo hori ez du inork aintzakotzat hartzen, eta badirudi adarra jotzen ari naizela. Herri guztietan ari dira danborradako pieza berriak egiten, danborrada bera herritartzeko. Hemen egin etaneure burua gorestekoa ari naizela diote. Nik neuk badut harro puntu bat, baina horrekin ez naiz joango mila pertsonari adarra jotzera! Egindako lana hor dago, eta egindako pieza batzuk jotzen dituzte. Beste inork eskatuz gero, egingo diot.

Danborradan azkena sartutako piezak izan zuen zeresanik...

Jardun gabe ezin da ikasi. Eibarrren, adibidez, *Txokolo* nola jotzen zen erakusteko eskatu zidaten. Sanjoanetan jotzeko, karnabal ondoren hasi ziren jotzen eta zoragarri aritu ziren. Hemen, berriz, lau entsegu jarri eta izugarria dela iruditzen zaigu, eta Eibarkoek bakoitzak bere elkartearen aparte ere jo egiten dute. Berria beti izaten dazaila, ikasi arte. Horrekin guztiarekin herriko danborrada izatea nahi dut, eta ez egotea beti Donostiari begira.

Abestiak egitean zertan inspiratzen zara?

Esaterako, *Soreasuko Sebastian* militarra zen, eta orduan militarren musika sartzea pentsatu nuen. *Mandioko polka*, berriz, gure aitarekin gogoratuta egin nuen; aita soinu-jolea zen, garai hartan polka modan zegoen, bakoitzak bere erara jotzen zuen, eta gure aita nola jotzen zuen gogoratuta egin nuen. Beste batzuetan, berriz, gauean bururatzaren zaizkit, apunteak hartzen

Lanak

Jose Luis Franzesenak emandako datuen arabera, honako lan hauek egin ditu:

Bandarako konposizioak. 21 kanta berri eta 30 moldatu.

Karnabaletako musika. Lau doinu berri osatu ditu eta 20 kanta moldatu.

Danborradako musika.

Hamabi doinu berri egin ditu eta sei moldatu.

Zezenketetako musika. Sei pieza egin eta bi moldatu.

Dultzainen banda. Bi doinu berri egin eta pieza bat moldatu du.

Txisturako kantak. Lau doinu egin ditu.

Organorako doinuak. Bi doinu egin ditu.

Abesbatzarako abestiak. 25 abesti moldatu ditu.

Elizako kantak. Hamahiru kantu egin ditu.

Bere kantak. 36 kanta egin ditu.

Beste moldaketak. Zazpi egin ditu.

ditut, bestela hurrengo goizean ez naizelako ezerekin gogoratzten. Baina ez galdetu piezak nola egiten ditudan, ez dakit-eta.

Musikan aritu zarelako al datorkizu 'Schubert' ezizena?

Ez, gaztetatik datorkit. Hamabost urte nituela, Zarauzko eskola profesionalean ibili nintzen ikasketak egiten. Behin *Sinfonia de amor* izeneko filma ikustera joan ginen. Orduan, orain baino argalagoa nintzen, betaurrekoak ere orain-gok baino txikiagoak nituen eta ilea kizkurra nuen. Hortik hasi ziren Zarautzen *Schubert* deitzen, musikari haren antza hartzen zidatelako, eta gero Azpeitian hasi zirenezizen horrekin deitzen. Azkenetako neu jabetu nintzen izenarekin, eta neuk erabiltzen dut. Kontserbatorioan hasi nintzenean, Elizondo izan nuen maisu, eta etxera deitu nion behin zerbaiteko. Noren partez galdezu zidatenean, "Schubert" esan nuen eta telefonoz bestaldekoa barrezka hasi zen, Elizondori deika, telefonoan Schubert delako bat zuela esanez, adarra jotzen ari nintzelakoan. ◀



Txikien danborradan ere zuzendari.



Mozorrotuta kaleak girotzen ibili da karnabaletan.



Zezenketetei ere doinua jarri die. MIKEL ZENGOTTA

Zuri Seltz

- Larru eta harizko jostundegia
- Poltsa eta gerrikoak
- Larru landuak
- Opari gaiak
- Bisutegia

Biçara

ILEAPAINDEGIA

Agirre 6 udako ordutegia: 09:00etatik 13:00etara
abuztuaren 11a arte oporrak

943 08 01 68

IZARRAITZ
HIGIEZINEN AHOLKULARITZA

PISUEN SALMENTA, ALOKAIRUA ETA ESKUALDATZEA,
LOKAL KOMERTZIALAK ETA BASERRIAK,
PABILIOAIK ETA LURRAK

Jose Artetxe kalea 8 ♦ Tel.: 943 81 67 77 - 943 81 68 12
inmobiliaria@izarraitz.com ♦ www.izarraitz.com

Zuretzako
fruta eta barazkiak
bildu berri eta zaporetsuak

jone
frutadenda

Bustinzuriko Errebala, 3-5 zk TEL. 943 08 06 32

ukabi
informatika

zure informatika denda

Salbe Auzunea 39, behea
Tel.: 943 15 01 01 Faxe: 943 15 00 01

www.ukabi.com

OKINDEGIA-GOZOTEGIA

ERROTATXO

Bustinzuriko Errebala, 3 - Telf. 943 15 74 38 • AZPEITIA

ARGIAK

etxeko tresna txikiak
lanparak, erlojuak...

elektrizitate lanak

mugikorren birkarga
euskatel-amena
movistar
vodafone

abuztuan
goizetan zabalik

Erdi kale, 4 - azpia Tel. 943816284

main oinetako bereziak

SANTIAGO KALEA 10, BEHEA
TEL.: 943083834

egun bakoitza
delako berezia

vialis - ikks - jocomomola - blivel...

Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak ▶



Uztarriaren aldizkariak eta liburuak.

Eusko Jaurlaritzak 11.400 euroko laguntza emango dio Uztarria Kultur Koordinakundeari herri aldizkarirako eta weberrako 2007an. Iazko ekitaldian koordinakundeak 11.700 euroko laguntza jaso zuen Eusko Jaurlaritzatik; 300 euro gehiago, beraz. **Uztarria herri aldizkaria.** 9.900 euroko laguntza aurtun. Iaz 10.200 euroko laguntza jaso zuen.

Uztarria.com webgunea. 1.500 euroko laguntza jasoko du. Iaz ere diru kopuru bera jaso zuen.

Guztira erakunde publikoetatik 52.900 euroko laguntza jasoko du koordinakundeak bere proiektuetarako 2007an. Gipuzkoako Foru Aldunditik 15.100 euro, 11.400 Eusko Jaurlaritzatik eta 26.400 Azpeitiko Udaletik.

Pourrako sariak 30ean

Frantziako Tourra dela-eta Uztarriak antolatu duen 7. Pourrako sari banaketa, saninazio bezperan izango da, hilaren 30ean. Hain zuzen, Uztarriaren txosnan, 20:00etan. Hainbat sari banatuko dira bertan. 115k partaide izan dira aurtun.



Iazko irabazleak.

Uztarria oporretan abuztuan. Abuztuan oporretan egongo da Uztarria; beraz, aldizkariaren hurrengo zenbakia urrian izango da. Uztarria.com ere oporretan egongo da, uztailaren 31tik irailaren 3a bitartean.

euskarazko telebista bai BAINA 'HITZA' NOLA SARTUTA?

Uztailaren 17an egin zuen Eusko Jaurlaritzak lurreko telebista digitaleko lizentzien banaketa. Araban bi barrutitan banatu ditu, Bizkaia seitan eta Gipuzkoan zazpitan; barruti bakoitzean lau lizentzia baimen, eta barrutietako bat da Urola Kostakoa.

Hemen, Grupos de Medios Audiovisuales de Gipuzkoa (Localmedia taldea), Zabali 2000 (Vocento), Gipuzkoa Television (Localia) eta Urolaldeko Komunikabideak (Ha-

maika) enpresei eman die lizentzia Jaurlaritzak.

Hamaika Telebista Hedatzeko Taldeak euskarazko telebista egingo du, eta Zarautz Telebistarekin batera sortu du enpresa. Euskarazko Komunikazio Taldeak (*Berria* egunkaria bertakoa da), Euskal Komunikabideak Hedatzeko Elkartek (*Gara* eta *Le Journal*), Corporacion Multimedia del Nortek (*Deia* eta *Noticias*), Euskaltelek, Elkarrek eta Barettek hartzen dute parte Hamaikan.

Euskarazko Komunikazio Taldea (EKT) *Urola Kostako Hitza*-n bazkide da (Uztarria Kultur Koordinakundea ere hala da, besteren artean), baina oraindik ez dago argi eskualdeko *Hitza*-k nola hartuko lukeen parte Urolaldeko Komunikabideen telebista katean.

Proiektuak tramite ugari gainditu beharko du. Aurreikuspenen arabera, telebista martxan egoteko bi urte eta erdi beharko dira, gutxienez. ◀

Kultur agenda irailean

Uztarriaren Kultura taldeak abuztuan ez du aterako Azpeitiko kultur agenda, uztailako zenbakian jakinarazi zuen bezala. Udalak berak atera du festetako egitaraua, eta agenda hurrengo zenbakia, irailean.

Aurtun ere txosna

Uztarriak aurtengo saninazioetan ere jarriko du txosna. Animatzen dena lanerako...



1.056

bazkide gara
dagoeneko
Uztarrin;
eskerrik asko
denei

egin zaitez bazkide UZTARRIAN



Zure datuak Uztarriari helarazteko aukerak:

- ▶ Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia, 20730) ▶ 227 posta kutxa, Azpeitia
- ▶ uztarria@topagunea.com ▶ Telefona (eta faxa): **943 15 03 58** ▶ www.uztarria.com

IZEN-ABIZENAK ▶

NAN edo EHNA ▶

HELBIDEA ▶

HERRIA ▶

TELEFONOA ▶

E-MAILA ▶

KONTUKO 20 ZENBAKI (harpidedunek ez) ▶

BAZKIDEAK ▶

Urtean. 27 euro.

Jasoko dituzu.

- ▶ Uztarria herri aldizkaria.
- ▶ Biografiak: *Joxe Takolo* eta *Imanol Elias*.
- ▶ Euskarazko prentsa eta Azpeitia liburua.
- ▶ Loiolarik ez balitz liburua.
- ▶ Otsobeltz liburua.
- ▶ Urrestillako musika taldeak liburua.
- ▶ Azpeitiarrak Espainiako Gerran liburua.
- ▶ Erdi prezioan: *Mendi gida* eta *Azpeitiko efemerideak*.

HARPIDEDUNAK ▶

Ez du diruz laguntzen.

Jasoko duzu.

- ▶ Uztarria herri aldizkaria.

Blogak ▶ www.uztarria.com/blogak/pertsonak

Urrestilla, izenik ere ez ia



Arkitekto jaunak marraztu zuen Azpeitiko mapan, Gipuzkoaren lurralde antolaketa bat aitzakia, Landetatik gorako bailara erraldoia ateratzen zen alkatearen begietarako. Bailara haren barruan zeuden lurrek 'Urrestilla distritua', 'auzoa', edo tankerako edozein izen eraman zezaketen. Kajoian sartzeko agindu zuen. "*Deja, deja... que los de Urrestilla van a pedir la independencia*".

Eta berriro independentismoa, independentismo susmoa hobeto esateko, zigortua izan zen eta Urrestilla ia ezer hutsera mugatua. Tradizioaren eta historiaren irizpidea gelditu zen nagusi eta gaurko gizarteak beharko lukeen funtzionamendua atzendua. Hala, Urrestillan, beren ustez, jaio, bataiatu, eskolaratu eta bizitako jendea ez dela urrestildarra esan beharko genuke. Azpeitiko izendegiko laurogeitamar baserri eta etxetako kontua da hori, zeintzuk Eizaguirre (*sic*), Elosiaga, Oñatz eta Aratz-Erreka auzoetakoak edo Olalde eta Larrañaga

areatakoak izan daitezke. Honetatik ondoriozta daitezkeen zentzugabekeriak gerta ez daitezen inoizko batean kontua zuzen daitekeela uste dut. Jakin beza jakin behar duenak, Urrestilla hirigune eta zerbait gehiago dugunok laguntzeko gaudela.

Beraz, Azpeitiko Udalarentzat Urrestilla dena, sei leku izentxo dira eta, seietatik, erdiak ez oso egoki idatzia, euskaraz behintzat, eta ez nago neu kulpaz guztietatik libre. Esango dut zergatik.

Zinegotzi nintzela proposamen bat aurkeztu nuen Urrestillako kale izenak euskarazko bertsio behin betirako eta ofiziala izan zezaten. Herritarren erabilera eta euskara aldetik derrigorrezko ziren zuzentasuna izan ziren irizpide. Hala, herriko plazari 'Antxieta plaza' jartzea onartu zen. Pentsa daiteke horren ondorio izan daitekeela zimitarioko habe batean zegoen portzelana urdinezko plaka 'Plaza del Beato Padre Jose de Antxieta' kentzea eta ordeaz hojallatazko '1' miserable bat jartzea elizari. Baina ez dauka zer izanik, horrela izatekotan ez baitzuten kenduko 'Urrestilgo erria' jartzen zuten portzelana urdinezko plaka,

'Población de Urrestilla' jartzen zuena kendu zuten bezala. Mada-rikazio eternalak gal dezala plaka horiek gorde zituen.

Zergatik jakin ez eta, irri eginez, 'calle Mantzano' deitu eta 'Zerra alde' deitzen genionarentzat 'Serra alde' proposatu nuen eta hala onartu zen. Inoizko dokumentu ofizialetan 'Manzana de Echevarrieta' bezala agertzen da, ulertuko da orain gure irria, eta 'Zerra' hitza idazten ikasi nuenetik ez dit alde egin inork zuzentzen ez duen arte 'Serra alde' proposatu izanaren lotsa. Orain arteko ahaleginek kale egin didate.

Beste hiru izenak ere ez daude arazoetatik libre. Googleko mapetara joz gero hauek lirateke: 'calle de Barrena', 'calle de Aundia' eta 'calle de Txikia'. Uztarria.com-eko izendegira joz, ofiziala uste dut, 'Kale-barrena' (Tellesforo Monzonek idazten zuen bezala), 'Kale-Aundia' eta 'Kale-txiki'. Total, 'Kale Haundia' bada baten izena, 'Kale Txikia' beharko lukeela bestearenak, edo, alderantziz, 'Txiki' bada batena, 'Haundi' beharko lukeela bestearenak. 'H' hizkia, Udalak ezean, geuk jartzen diogu.

Nik uste Urrestillak bi kale zituela, orain gehiago dauzka, bata kale nagusia Azpeititik Nuarberako bidea egiten duena eta bi zati dauzkana. Zubitik gorakoa bata, kale gorena, zaharrei ikasi genien bezala, eta zubitik beheakoa bestea, kale barrena, erabilera eta izenean gordetzen dugun bezala. Horren parean eta konparazioz kale txikia edukiko genuke. Azken honetatik datoz, egoera diglosikoan, 'kale haundia' (handi ez dena errealitatean), edo kale behearen pareko 'kale goia', eta gainerantzeko aldaera ustelak.

Argia astekarian 'Debagoiena' izena abian jarri zuen Iban Aranzabalek adierazten zuen oraintsu, formazioz irakaslea eta filologoa dela, baina aurretik euskalduna. Eta horregatik gustatzen zaiola, euskalduna delako, prakabarrenari 'praka-behea' ez deitzea. Deba Garaia ez omen da ezer Debagoienaren ondoan.

A! Eta beste gauza bat ere esaten du Aranzabalek honekin zer ikusirik ez duena baina niri asko gustatu zaidana. "Anonimoaren moztorropean edozer esaten da eta edozeinez".

▶ Ramon Etxezarreta

Di-da! ▶ www.uztarria.com/blogak/di-da



Trenaren Museo birtuala

Trenak.com webean Azpeitiko Trenaren Museoko irudi ugari dago, hiru dimentsioko bisita birtuala egi-

teko moduan. Alegiazko museoarekin "burdinbideetako ondarea gordetzen egindako lana" ezagutarazi nahi dute. Horixe jaso dugu uztarria.com-en.

Inkesta ▶

Sanferminetara nora joaten zara?

%45,36 Iruñera

%45,36 Lesakara

%9,28 Pasai Antxora

Orain dagoen galdera.

Estali gabeko igerilekura joaten?

▶ Bai, sarritan.

▶ Bai, noizean behin.

▶ Ez, inoiz ez.

Oharra. Uztarria.com abuztuan oporretan egongo den arren, inkestan bozkatu ahal izango da.

LANAREN minak

Azken hilabeteotan ere lan istripuak izan dituzte zenbait herritarrek. Asko dira ezbeharra gertutik bizi dutenak: enpresaburuak, medikuak, sindikatuak...

► Testuak: Mainer Zendoia ► Argazkiak: Mainer Zendoia eta 'Urola Kostako Hitza'

Azken hilabeteotan, lan istripu bat baino gehiagoren berri izan da Azpeitian. Maiatzean, esaterako, A-8 autobidean auto istripua izandako neska oriotarra anbulantzian ematen ari zen azpeitiarrak istripua izan zuen. Neska larri zauritu zen —hurrengo egunean hil zen— eta harekin zihoan azpeitiarrak ere zauri larriak izan zituen. Ekainean, berriz ere A-8 autobidean, bide sastrakak garbitzen ari zen azpeitiar langileak izan zuen istripua. Kamioi artikulatu bat bidetik atera eta langilearen furgoneta jo zuen; ondorioz, furgonetak langilea azpian harrapatu zuen eta zauri larriak eragin zizkion. Orain aste batzuk, berriz, Azpeitiko jate-txe bateko sukaldariari presio-elteak eztanda egin zion eta erre-dura handiak eragin zizkion gorputzeko hainbat ataletan. Beraz, ofizio, enpresa eta egoera desberdinetan gertatzen dira istripuak, inor ere ez dago lanean ari dela ezbeharra izatetik salbu.

Laneko istripuak noizean behin gertatzen badira ere, istripu berri bat izaten den bakoitzean areagotzen dira segurtasun neurrien, langilearen errutinaren, patronalaren erantzunaren edota zaurien inguruko eztabaidak. Adegik Gipuzkoako Enpresarien Elkarteak urte hasieran kaleratutako da-

tuen arabera, heriotza eragin zuten lan istripuak %50 murriztu ziren 2006an, eta istripu larriak, berriz, %11. Urte horretan bi pertsona hil ziren lan istripuetan Azpeitian, LAB sindikatuak jakinarazitako datuen arabera: 2006ko uztailaren 19an, Altuna y Uria enpresan lanean ziharduen 40 urteko azkoitiarra hil zen Sistiaga Errekako harrobian, kamioia irautita; urte bereko abuztuaren 23an, Manuel Almeida Pinto enpresarentzat lan egiten zuen 40 urteko laguna hil zen, leherketa baten ondorioz.

► SEGURTASUN NEURRIAK.

Aitor Goenaga ELA sindikatuko eskualdeko arduradunak uste du enpresek ez dutela behar bezainbeste inbertitzen segurtasunean. "Askotan gehiago begiratzen diote produkzioa geratu ondoren berriz ere martxan jartzea kostatu denari, segurtasunari baino. Produktibitatea lehenesten dute segurtasunaren gainetik". LAB sindikatua ere iritzi berekoa da. "Lan istripuak ez dira zerbait normala edo saihestezina, istripu guztiak saihestu daitezke, nahi izanez gero. Patronalak prekarietaterik gordinenera eta segurtasun faltara kondenatu nahi gaitu". Adegik langileen "segurtasuna, osotasuna eta osasuna" kontuan hartzen

dituen balioak direla dio.

ELAko eskualdeko ordezkariaren iritziz, lan istripuen atzean, ondorengo profila errepikatzen da: gaztea, aldi bateko langilea eta soldata kaskarra kobratzen duena. "Horri guztiari betiko istorioak gehitu behar zaizkio: presak eta lan erritimo handia. Egia da enpresaburuak baliabideak jartzen dizkiola langileari, baina neurri horiek be-tearazi egin behar dira". Ildo horretan, Goenagak uste du enpresako arduradunek bermatu behar dutela segurtasun neurriak betetzea. "Langile bat egunero



Medikuaren ikuspuntua

Jose Mari Ugartek (Zarautz, 1959) bost urte daramatza Asepeyo mutualitateak Azpeitian duen egoitzan lanean. Gainera, 1988. urteaz geroztik peritu mediku edo gorputzeko minaren baloratzaille gisa parte hartu izan du zenbait epaiketetan. Lan istripuetan zauritutako pertsona ugari pasatu da dagoeneko haren kontsultatik, eta era guztietako zauriak ikusi ditu. "Asepeyora afiliatuta dagoen enpresako langilea niregana etortzen denean, hura artatu eta gertatu zaionaren inguruko egia jakitea da nire lana. Normalean, istripua izan duen langilea etortzen da Asepeyora, eta enpresak istripuaren parte egiten du. Orduan, nik zaurien diagnosia egin eta, horren arabera, baja den edo ez baloratzen dut". Ugartek ez du erabakitzen zauritutakori dagokion baliaezintasun maila. "Nik zauritua nola geratu den edo zer egiteko gai izan daitekeen esan dezaket. Hortik aurrera, Gizarte Segurantzako tribunalak erabakitzen du zer motako baliaezintasuna dagoen".

Batzuetan zauritutakoak duenaren inguruan erabakitzea ez da erraza izaten.

"Kasu batzuetan arazoak izaten ditut laneko istripua den edo ez erabakitzeko; bizkarreko

edo sorbaldako zauriekin ez da hain erraza izaten arazoa nondik datorren erabakitzea". Ildo horretan, kontsultan iruzurgileak ere tokatu izan zaizkiola aitortzen du. "Iruzur egiten saiatzen direnek benetako gaixoe-kiko errespetu falta dute. Antza segituan ematen zaio, baina gero hori frogatzea zailagoa izaten da". Beste kasu batzuen atzean, berriz, drama pertsonalak ezkututzen dira. "Gutzizko baliaezintasuna zuen pertsona batek gradua errebisatzeko eskatu zuen istripua pasatu eta hamar urtera. Medikoki ez zegoen nobedaderik; ebakuntza gehiago ez zizkioten egin eta istripua izan ondoren utzi zuen lana. Gerora jakin nuen pertsonalki egoera asko aldatu zitzaizola eta kontuak ez zitzaizkiola ateratzen".


Horren guztiaren aurrean, "enpresaren eta langilearen kontzientzia-zioa beharrezkoa" dela pentsatzen du. "Izan ere, betaurrekoak ibiltzeko agindua eman eta jantzi gabe zituelako begia zauritzen duen langilearen kasuan, ardura berea da; azkenean, begia berak galtzen du".

“Nik zauritua nola geratu den eta zer egiteko gai izan daitekeen esan dezaket. Hortik aurrera, Gizarte Segurantzako tribunalak erabakitzen du”

“Iruzur egiten saiatzen direnek benetako gaixoe-kiko errespetu falta dute”

JOSE MARI UGARTE ▶

Asepeyoko medikua Azpeitian



Jose Mari Ugarte medikua, Asepeyon. ▶▶

» ISAAC SUDUPE ▶ lan istripua izandakoa

“Ohitura txarren ondorioz gertatu zen laneko istripua”

Ez da erraza lan istripua izan duen bati elkar-erizketa egitea. Arrazoi desberdinak dira eragozpen. Isaac Sudupe, baina, prestatu da, argazkirik ateratzea nahi ez duen arren. 2002ko irailaren 12an izan zuen istripua, Azpeitiko Arcelor enpresan. Ondorioz, eskubiko besoa galdu zuen eta azal-mentuak egin zizkieten gorputzeko hainbat ataletan.

Bost urte dagoeneko istripua izan zenuela...

Bai, irailean bost urte. Mantenuko mekaniko egiten nuen lana, erreleboan, Arcelorren. Nire lana, laminazioko treneko kaxak prestatzea eta hautsita zeudenak ordezkatzeko zen. Kontatu didatenez, egun hartan laminazioa gertatu eta trena martxan utzi zituzten aurreko erreleboek. Ni kaxa bat ematera joan nintzen eta laminazioko zilindro handiak harrapatu ninduen. Minutu bat aurreratzeagatik gertatu zen istripua.

Saihestu al zitekeen?

Esan bezala, minutua aurreratzeagatik gertatu zen lan istripua. Langileak ezin du makina gertatzeko agindua eman, hori enkargatuen gain

baitago. Berez, enkargatuak kaxa aldatzeko agindu zuenean, trena martxan zegoela ohar-tu eta hura gelditu behar zuen. Nik gerora mila amets egin ditut gertatu zena eraiki nahian eta, denetan, desberdin irudikatu dut gertatutakoa. Lehen zortzi hilabeteetan amesgaizto asko izan nituen.

Istripuaren ondorengo egunak nola gogoratzen dituzu?

Besoa hasieratik eman zuten galdutzat. Gorputzeko eskubialde guztia ere erreta nuen eta, ondorioz, azal-mentuak egin zizkidaten. Guztira, 28 egun pasatu nituen ospitalean.

Gogorra egin al zitzaizun eguneroko bizimoduari eustea?

Oraindik ere besoa izango banu bezala sentitzen dut, eta dagoeneko bost urte pasatu dira. Izan ere, besoa arrankatu egin zitzaidan istripuan eta gero moztu egin zidaten. Medikuek esan zidaten ez zekitela nolatan gelditu nintzen bizirik. Beraz, zauriak sendatu eta protezia jartzea bururatu ere ez egiteko esan zidaten medikuek, ez zekitelako nire zainak non zeuden.

8:00etan joan beharrean 08:30ean joaten bada lanera, horren aurrean neurriak hartuko ditu enpresak; eta zergatik ez segurtasun neurri bat urratzen duenean?”. Jose Mari Ugarte Asepeyo mutualitateak Azpeitiko egoitzan duen medikuaren iritziz, “enpresak neurriak hartu behar ditu arriskuak saihesteko, baina beti egoten da langileari dagokion zati bat”. Horren aurrean, enpresa eta langilea prebentzio mailan “ondo kontzientziazitzeko” beharra ikusten du.

Administrazioak ere zeregina baduela iritzi diote sindikatuek. “Patronala eta gor-mutu jokatzeko duten administrazioak dira lan istripuetako langileen heriotzen arduradunak”, LAB sindikatuaren ustez. Horren harira, Goenaga ELAko eskualdeko arduradunak uste du administrazioa ez dela

langilearen egoeraz eta segurtasunaz arduratzen. “Bitxia da: taberna bat zabaldu behar duenari gauza asko exijitzen dizkiote taberna ireki aurretik –intsonorizazioa, baimenak, agiriak–, baina behin taberna irekitakoan berdin die hango langileek zer egoeratan egiten duten lana –kontratua, atsedeen orduak, soldata–. Ildo horretan, inspektzioak ez duela behar bezala funtzionatzen uste du. “Inspektore gutxi dago, eta daudenek beste alde batera begiratzen dute”.

▶ **ERAIKUNTZA.** Oro har, eraikuntza da lan istripu gehien izaten den sektorea. Dena dela, Adegik kaleratutako datuen arabera, %33,3 istripu gutxiago izan ziren sektore horretan 2006an; guztira, 130 ezbehar gutxiago gertatu ziren joan den urtean eraikuntzan.

Harrezkero izan da istripurik han.

Bai, nahiko gogorrek, gainera. Heriotzak, behatzak moztutakoak...

Lehenagotik arrisku egoerarik bizi izan al zenuen gertutik?

Horrelako zerbait edo okerragoak pasa zitezkeela pentsatu izan dut maiz. Istripu hori gertatu baino zortzi hilabete lehenago, burdin erroilu ikaragarria erori zitzaidan 50 metrora. Hark harrapatu izan banindu, orduan bai gertuko nintzela hantxe bertan seko. Horrelako gauzak gertatzea ez da normala izaten, baina batzuetan gertatzen dira.

Istripu ondorengo osatze lana gogorra izango zen.

Bai. Donostiara astean bi aldiz joaten nintzen lehen sei hilabeteetan. Gero, bi urtean ibili nintzen herriko fisioterapeuta batekin. Besoko mina kentzeko eta eskubiko hanka mugiarazteko ariketak egiten nituen.

Gaur egun bizimodu normala egin al dezakezu?

Ezkerrez bai! Istripua pasatu ondoren ondo zaudela sinistu nahi duzu, baina goizetan dutxatu ondoren ispiluan begiratzea triste da. Neroni janzten naiz, baina txuleta ebakitzeko laguntza behar dut...

Eguneroko bizitza egiteko zer gauza moldatu behar izan dituzu?



Jose Mari Ugarte Asepeyoko medikuari etortzen zaizkion zauritako gehienak ere eraikuntzako langileak dira.

Sektore bakoitzean burutzen duten aktibitatearen arabera izaten dira langileen zauriak. “Eraikuntzan hausturak gertatzen dira batik bat, metalean hausturak eta tendoi mozketak, egurren mugimendu errepikakorrek eragindako zauriak, eta zerbitzuetan arazo muskularrak”, dio Ugartek.

Aurrera begira, Adegik 2007-2012an ezbehar kopurua %25ean jaisteko lankidetzak eskatu die sindikatuari. Denek batera lan egitea beharrezkoa izango dela diote. Izan ere, Goenaga ELAko kideak dioten bezala, “lan egiteko eskubidea dugun bezala, lanetik etxera itzultzeko eskubidea ere badugu”.

👉 **Lan egiteko eskubidea dugun bezala, lanetik etxera itzultzeko eskubidea ere badugu”**

AITOR GOENAGA ▶

ELAko eskualdeko arduraduna

“Laminazioa geratuta eta trena martxan utzi zituzten; ni kaxa bat ematera joan nintzen eta laminazioko zilindro handiak harrapatu ninduen”

“Sindikatuak ez dute ezer egiteko lan istripuen kasuetan; pankartarekin agertzen dira tailer aurrera baina, nire ustez, gaur politikaz gehiago arduratzen dira”

Autoa egokitu behar izan dut; automatikoa eta pomuloduna da orain gidatzen dudana. Hala ere, egokitzeko gauzarik zailena norbere burua da. Beso bat gabe bizi behar duzula jakitzea zaila egiten da hasieran. Lehen egunean, ospitaleko ohetik altxatu nintzenean, nahi gabe eskubiko besoa –falta zaidana– apoiatu nuen horman eta lurrera erori nintzen.

Enpresa ondo portatu al zen istripuaren ondoren?

Enpresa ez zen hain gaizki portatu, baina tarte teko batzuk ez hain ondo.

Juridikoki zer egoeratan zaude?

Istripua izan ondoren, urte eta erdi egon nintzen bajaran. Aurrena, guztizko baliaezintasuna eman zidaten eta, helegitea sartu ondoren, absolutua. Abokatuak esan zidan epaiketan

tokatu zitzaigun medikuak inori ez ziola absolutua ematen, horretarako lepoa moztuta azaldu beharko nuela. Helegitea prestatzen hasi eta sei hilabetera beste epaiketa bat izan genuen. Azkenean, absolutua lortu nuen.

Segurtasun neurriak betetzen al dira lantokietan?

Sarritan produkzioari begira egiten da lana. Segurtasuna bermatzeko, ‘perretxikoak’ deitzen diegun mandoak ditugu makinak gelditzeko baina, haiek manipulatu gero, enkargatuak errieta egiten dizu. Beraz, azken batean langileak ez ditu erabiltzen. Bukaeran, ‘perretxiko’ horiek adornurako daude, Osalanekoak etortzen direnean tapadera gisa erabiltzeko.

Zeure istripua pasatu aurretik antzeko esperientziarik bizita al zeunden?

Bat baino gehiago! Bai lankideekin eta baita neronek pasatutako arriskuak ere. Enpresa horretan sustorik pasatu gabeko jende gutxi dago. Postuaren arabera, arriskua handia da.

Sindikatueta jo al zenuen?

Sindikatuak ez dute ezer egiten horrelako kasuetan. Abokatu laboralista bat hartu genuen auzia aurrera eramateko. Sindikatuak pankartarekin agertzen dira tailer aurrera baina, gainerakoan, ez dute gehiegi egiten. Nire ustez, gaur egun sindikatuak langileez baino gehiago politikaz arduratzen dira.

Lankideek babestu al zintuzten istripua izandakoan?

Horrelako kasuetan beldurra ere izaten da, nire ustez. Neure kasuan, nire erreleboko hiru lagun eta beste erreleboko elektrikari bat azaldu ziren lekuko gisa hitz egiteko prest. Elektrikari hark gauzak asko argitu zizkidan. Hark azaldu zidan nola utzi zituzten laminazioa eta trena errelebo aldaketan.

Erretiratzear harrapatu zintuen istripuak, ezta?

Istripua izan nuenean, 56 urte nituen. Hementxe urte eta erdi neramatzen enpresan lanean. Lehenagotik beste enpresa batzuetan aritu nintzen lanean, baina hamabost urte nituenetik ibili naiz mekaniko gisa lanean.

Nolako da gaur egungo zure bizimodua?

Oraindik ere egunero egiten ditut ariketak etxean. Ahal dudan bizimodurik normalena egiten saiatzen naiz. Azaroan bukatu nuen medikuek eta psikologoak ezarritako tratamendua. Orain, Clinica del Dolor erietxera joaten naiz sei hilean behin.

Zauri psikologikoak fisikoak bezain gogorrak al dira?

Lau urtean ibili naiz psikologoarekin, eta mesede egin dit.

Gertatu zena gogoratuta, zer sentitzen duzu?

Zenbait pertsonen jokabideak amorrua ematen dit; beste zenbaitekin, aldiz, gustura egoten naiz. Nire ustez, ohitura txarren ondorioz gertatu zen lan istripua.

Mobilizazioak

Enpresak segurtasun neurriak hobetzen saiatu badira ere, beti sortzen dira arrisku egoerak lanean. Aurten, oraingoan, Azpeitian ez da pertsonarik hil beharrean ari zela, baina 2006an bi lagun hil ziren. Istripu bat gertatzen denean, 24 orduko lanuzteak, kontzentrazioak edota elkarretaratzeak deitzen dituzte sindikatuak. Istripu larriak direnean edota heriotza eragin duten ezbeharrak gertatzen direnean, deialdi bateratua egiten saiatzen dira. Argazkian, iaz Sistiaga Errekako harrobian hil zen Altuna y Uria enpresako langilearen heriotza salatzen ELA, LAB, ESK eta STEE-EILAS sindikatuak deitutako elkarretaratzea ageri da. ◀



Sistiaga Errekako harrobian hil zen langilearen heriotza salatzen deitutako elkarretaratzea, harrobian bertan.

JOAN...



Gurean ▶

ESTEBAN PEREZ

▶ Skacha taldeko abeslaria

“Ondo hartu gaituzte Azpeitian”

Gaztetxeko bigarren urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan, Skacha (Pontevedra, Galizia) taldeak kontzertua eman zuen uztailaren 14an, Gaztetxean bertan.

Lehenagotik izanda al zeunden Azpeitian?

Ez, eta gustura egon gara. Ondo hartu gaituzte.

Zuen musikarekiko zaletasuna aurkitu al duzue?

Bai, izugarria! Egia esan, Arrasaten eta Bergaran behin baino gehiagotan izan gara, eta asko gusta-

tzen zaigu hemen duzuen kultura musikala. Gaztetxea bezalako guneak eskura izatea ere zorte galanta da.

Itzultzeko asmorik?

Bai. Gipuzkoa gustukoa dugu eta etortzen garenean primeran pasatzen dugu. ◀



Akordioa Grumalen

Grumal enpresako langileek lan hitzarmen “duina” eskatzeko greba deitu zuten ekainaren 29an. Uztailaren 9rako deituta zuten greba mugagabea bertan behera utzi zuten 9ko eguerdian, langileak eta zuzendaritza akordiora iritsi ondoren. Argazkian, Grumaleko langileak ekainaren 29an egindako kontzentrazioan.



Baltsa jaitsiera Urola ibaian

Azpeitiko Gaztetxearen bigarren urteurrena ospatzeko, baltsa jaitsiera antolatu zuten uztailaren 14an Urola ibaian. Argazkian, parte hartu zuen talde bakoitzeko bost kideak ageri dira.


Legealdiko lehen udalbatzarra

Uztailaren 7an egin zuten legealdiko aurreneko udalbatzarra udaletxean. Udal batzordeak aurkeztu zituzten eta liberatutako zinegotzien eta alkatearen soldaten murrizketak erabaki zituzten.



Jose Maria Moraza Loiolan

Jose Maria Moraza eskulturgileak *Errespetua* izeneko artelana zuzenean eraiki zuen uztailaren 1ean Loiolako Basilikan. Argazkian, Morazak eraikitako artelana ageri da basilikako kupula azpian.



UZTAILAK 6 ▶ Xabier Mujikak irabazi zuen Bide Ona elkarteak Sanjuandegin antolatutako xake txapelketa.

UZTAILAK 11 ▶ Garazi Elorza eta Ibon Eskudero irabazi zuten Gaztetxeko Pala Txapelketako finala, Frontoi Txikin. **UZTAILAK 12** ▶ Frantzia, Belgika, Kanada eta Luxenburgoko organo-joleen kontzertua, Loiolako Basilikan. **UZTAILAK 14** ▶ Itsasi Dantza Taldearen eta Julian Barrenetxea abesbatzaren emanaldia, Izarraitz Pilotalekuan. **UZTAILAK 15** ▶ Metal Boskotearen kontzertua, plazan. **UZTAILAK 22** ▶ Sagardo Eguna.



Azpeitiko tabernarien elkartea



Etkezuri - Bost - Korrale - Orkatz - Intz
Amaia - Zuhatz - Txarrantza - Oinatz - Lokotz
Fideo - Neguda - Pikua - Elurra - Oker - Urtzi



ondo pasatu sarinazioak!





ABUZTUKO EGUTEGIA

ITXITA: 6tik 21era

IREKITA: beste egunetan goizez

Julian Elorza 1, behea - Tel. 943 81 50 38



dékorazioa eta opariak

Jose Artetxe 11 Tel.: 943 811142



fisioterapia & estetika zentroa

abuztuaren 20tik goizez zabalik

943 81 23 70



abuztuan goizez zabalik
943 15 15 09

azpeitiko



HERRIKO NEGOZIOEN GUNEA

www.uztarria.com/gida



Urbartete, 7 bajo • Tel. - Fax: 943 8137 87
e-mail: e.lagunak@wanadoo.es
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)



SALBE AUZUNEA 35
TEL. 943 15 12 87
20730 AZPEITIA

Abuztuan zabalik
10:00etatik 13:00etara



ZALDIKO



ESTATIKA ETA OPARIAK
SALBE AUZOA 15, BEHEA
TEL. 943 15 12 75



nabar

MERTZERIA
LENTZERIA

jose artetxe, 16
20730 AZPEITIA



*Azpeitia
Kimu bat S.L.*

Abuztuan zabalik

UROLAKO JARDINERITZA

AZPEITIA-URRESTILLA BIDEA - TFNO./ FAX: 943 15 00 85 20730 AZPEITIA



oinetakoak



abuztuan
goizetan
zabalik

Urbartete, 8
943 15 78 11

**Ezkontza,
bataio,
lehen jaunartze
eta
era guztietako
opariak
eta
gonbidapenak**

Santiago kalea, 14
699 325 839

UZTAILAK 28 (zapatua) ▶

Ikuskizuna.

- ▶ XI. Scalextrix ekitaldia.
- ▶ 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.
- ▶ Frontoi Txikin.

Txirrindularitza.

- ▶ XXVII. San Inazio Txirrindulari Proba.
- ▶ 16:00etan.

Manifestazioa.

- ▶ Euskal presoaren eskubideen aldeko ekimenen hasiera, Igerileku aurrean. 19:00etan.
- ▶ Herri afaria, Azoka plazan. 21:00etan. Txartelak salgai daude ohiko lekuetan.

Musika.

- ▶ Segabathor eta Elvisavuelo herriko taldeen kontzertua.
- ▶ 22:30ean.
- ▶ Plazan.

Musika.

- ▶ Kontzertuak.
- ▶ 23:00etan.
- ▶ Gaztetxean.

UZTAILAK 29 (igandea, Umeen

Euskal Festa) ▶

Diana.

- ▶ Itsasiko txistularien eta banda gaztearen eskutik.
- ▶ 10:00etan.

Lehiaketa.

- ▶ XXV. Pitxoi Tiraketa, Ollagorria elkartek antolatuta.
- ▶ 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 18:00etara.
- ▶ Lapatxeko zelaian.

Udalbatza txikia.

- ▶ 10:45ean, udaletxetik irteera.
- ▶ 11:00etan, meza nagusia, Soreasuko San Sebastianen Parrokian.
- ▶ 12:30ean, ongi-etorria, plazan.

Erraldoiak.

- ▶ 11:30ean, desfilea, kaleetan.
- ▶ 12:45ean, erraldoien dantza saioa eta sari banaketa, plazan.

Desenkajonamendua.

- ▶ 18:30ean.
- ▶ Zezen-plazan.

Musika.

- ▶ Azpeitiko gazteek osatutako Nahidekena txaranga.
- ▶ 19:30ean.
- ▶ Kaleetan.

Musika.

- ▶ Burrunda kontzertua Dikers' eta Bisai taldeen eskutik.
- ▶ 20:30ean.
- ▶ Plazan.

UZTAILAK 30 (astelehena, San Inazio bezpera) ▶

Hamaiketakoa.

- ▶ 11:00etan.
- ▶ Plazan.

Festen hasiera.

- ▶ Txupinazo ofiziala, udaletxetik botata.
- ▶ 12:00etan.
- ▶ Plazan.

Herri bazkaria.

- ▶ Bazkaria. Ondoren, bertso lehiaketa.
- ▶ 14:30ean.
- ▶ Plazan.

Emanaldia.

- ▶ Txirri, Mirri eta Txiribito Junior pailazoen jaialdia.
- ▶ 17:00etan.
- ▶ Olazko Amaren plazan.

Pilota.

- ▶ San Inazio jaialdiko erremonite finala.
- ▶ 17:30ean.
- ▶ Izarraitz Pilotalekuan.

Musika.

- ▶ The Mackensy's Clan Band taldearen emanaldia.
- ▶ 18:00etan.
- ▶ Kaleetan.

Musika.

- ▶ Julian Barrenetxea eta Parrokiko abesbatzak Julian Barrenetxearen arratsaldeko otoitzak eta *Salbea* kantatuko dituzte. Organuan, Maria Dolores Oteiza, Jaime Amenabarren gidaritzapean.
- ▶ 19:30ean.
- ▶ Loiolako Basilikan.

Suzko erroberak.

- ▶ Zaragozana su-etxea.
- ▶ 23:00etan.

Musika.

- ▶ Karaokea.
- ▶ 23:00etan.



HERRI BAZKARIA.

Urtero bezala, herri bazkaria egingo dute San Inazio bezperan, plazan. Bazkariaren ondoren, bertso lehiaketa izango da, hantxe bertan.

UZTAILAK 30 ▶ 14:30ean ▶ Plazan

...ETORRI



- ▶ Txosnetan (Zelai Luzen egongo dira kokatuta).

Musika.

- ▶ Abiba disko jaia.
- ▶ 23:30ean.
- ▶ Plazan.

Musika.

- ▶ Saioa, Alabier, Lurtxundio, eta Tapia eta Leturiaren erromeria.
- ▶ 23:30ean.
- ▶ Olazko Amaren plazan.

Musika.

- ▶ Tximeleta taldearen erromeria.
- ▶ 24:00etan.
- ▶ Txosnetan.

UZTAILAK 31 (asteartea, San Inazio eguna) ▶

Diana.

- ▶ Herriko Musika Banda, Biasteriko Dultzainariak eta Izarraitz Txistulari Taldea.
- ▶ 09:00etan.
- ▶ 10:10ean, udal korporazioa parrokira.
- ▶ 10:30ean, prozesioa.

Meza.

- ▶ Juan Maria Uriartek Donostiako gotzainak eta herriko apaizek emanda, *Meza santua*. Julian Barrenetxea eta parrokiko abesbatzak *J.A. Santesteban* meza eskainiko dute.
- ▶ 11:00etan.
- ▶ Soreasuko San Sebastianen Parrokian.

Zezen aukeraketa.

- ▶ Arratsaldean toreatuko dituzten zezenen aukeraketa.
- ▶ 12:00etan
- ▶ Zezen-plazan.

Musika.

- ▶ Udal Musika Bandaren kontzertua.
- ▶ 13:00etan.
- ▶ Plazan.

Haurrentzako emanaldia.

- ▶ Luma Gorri haur berbena.
- ▶ 16:00etan.
- ▶ Plazan.

berria



BALEAREN ARRANTZA, ONESTEKOTAN

Iruñe-Veleian aurkitutako euskarazko hitzak III. eta VI. mendeen artekoak dira

■ Etre-baten zehaztutako hitzak III. eta VI. mendeen artekoak dira. ■ Iruñe-Veleian aurkitutako hitzak III. eta VI. mendeen artekoak dira.



Felip Puig
«Esquerra d'extrema
egina da eta ez du
jakin errealtatea
lortzen»
■ ELKARTZETAKO 12
Eduardo Zubizarreta izendatu
dute Adergi Gipuzkoako
patronaleko presidente
■ Ekin bat eginda baina batuen
konpromisoaren alde jarrita
duten erakundeak
■ Basterrenak aldatzeko
proposamena «etxaderako»
prestatuko du Jose Mariak
■ ELKARTZETAKO 13

Asesinada la periodista que denunciaba los abusos de Putin

«Un pistolero mató a Anna Politkovskaya en el ascensor de su casa en el centro de Moscú»
■ Mantenia una posicoina muy critica con la politica del Kremlin en Chechenia y medio en la crisis de la escuela de Beslan

Los jueces sustitutos de Gipuzkoa estudian demandar al Ministerio

DANIEL UTELLA
Comunidad
MEXICO - El ministro de la Justicia
de México ha sido acusado de
haber intervenido en el caso de
los jueces sustitutos de Gipuzkoa

CRONICA

Los jueces sustitutos de Gipuzkoa

ALONSO ACARICIA EL TITULO

ALONSO ACARICIA EL TITULO
production equilibree avec le Sud

18 500 personnes avec Batera pour un référendum sur le département

► Côte Pays Basque l'objectif des 21 000
pétitionnaires devant être atteint à la fin du
mois. En Meur, 800 personnes ont signé

► Les élus de Batera ont déposé les
pétitions et les observations durant la
campagne à tout l'objet

La Maison des



L'Aviron
attaque
série à

de Madrid
El ex ministro estu
volver a la política
en las generales

El presidente
Luis Rodríguez
Pascual, en la
sede de la
Fuerza de
Seguridad
Nacional

El presidente
Luis Rodríguez
Pascual, en la
sede de la
Fuerza de
Seguridad
Nacional

El presidente
Luis Rodríguez
Pascual, en la
sede de la
Fuerza de
Seguridad
Nacional

El presidente
Luis Rodríguez
Pascual, en la
sede de la
Fuerza de
Seguridad
Nacional

Aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria

► Zezenketa.

► Saninazioetako lehen zezenketa. Domingo Lopez Chaves, Francisco Javier Sanchez Vara eta Javier Valverde toreatzaileak ariko dira.

► 18:00etan.
► Zezen-plazan.

Haur jolasak.

► 18:00etan.
► Txosnetan.

Emanaldia.

► Les Enfants-en ikuskizuna.
► 18:30ean.
► Kaleetan.

Musika.

► Oria txaranga.
► 19:30ean.
► Zezen-plazatik irtenda.

Musika.

► Nueva Alaska orkestra.
► 20:30ean eta 23:30ean.
► Plazan.

Emanaldia.

► Bideo emanaldia.
► 22:00etan.
► Txosnetan.

Pilota.

► Asegarceko pilotarien eskuzko partida profesionalak.
► 22:30ean.
► Izarraitz Pilotalekuan.

Suzko erroberak.

► Astondoa su-etxea.
► 23:00etan.

Musika.

► Lauroba eta Delorean taldeen kontzertua.
► 23:00etan.
► Txosnetan.

Musika.

► Mexiko Lindo mariatiak.
► 23:30ean.
► Olazko Amaren plazan.

ABUZTUAK 1 (asteazkena, San Inazio bigarrena) ►

Diana.

► Izarraitz Txistulari Taldea, Azpeitiko Musika Banda eta Biasteriko Dultzainariak.
► 09:00etan.

Elkarretaratzea.

► *Etxean nahi ditugu* lelopean, euskal presoen alde.
► 10:00etan.
► Loiolako Basilika aurrean.



DELOREAN ZUZENEAN.

San Inazio egunez, Delorean Zarauzko musika talde ezagunak txosnetan kontzertua joko du.

UZTAILAK 31 ► 23:00etan ► Txosnetan

Ongi-etorria.

► EAEko lehendakariari, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiko agintariei ongi-etorria egingo die Udalak.

► 10:15ean.
► Plazan.
► Ondoren, Loiolako Basilikara joango dira.

Meza nagusia.

► Juan Maria Uriarte Donostiako gotzainak eta herriko apaizek emango dute.

► Bertan, Julian Barrenetxea eta parroikiko abesbatzak Jose Luis Franzesenaren *Jasokunde Meza* kantatuko dute.

Organularia Franzesena izango da, eta abesbatzen zuzendari Jaime Amenabar ariko da.

► 11:00etan.
► Loiolako Basilikan.

Zezen aukeraketa.

► Arratsaldean toreatuko dituzten zezenen aukeraketa.
► 12:00etan.
► Zezen-plazan.

Aureskua.

► Itsasi Dantza Taldeak ohiko

aureskua eskainiko die agintariei.

► 13:00etan.
► Plazan.

Haur jolasak.

► Haurrentzako jaialdi berezia.
► 16:00etan.
► Plazan.

Zezenketa.

► Saninazioetako bigarren zezenketa: David Fandila *El Fandi*, Matias Tejela eta Alejandro Talavante toreatzaileak.
► 18:00etan.
► Zezen-plazan.

Musika.

► Primate eta Di-Wahala taldeak.
► 18:30ean, kaleetan.
► 23:30ean, Olazko Amaren plazan.

Rally poteoa.

► 19:00etan.
► Kaleetan.

Musika.

► Los Pasai txaranga.
► 19:30ean.
► Zezen-plazatik irtenda.

Herri afaria.

► 21:00etan.
► Txosnetan.

Pilota.

► Aspeko pilotariekin eskuzko partida profesionalak.
► 22:30ean.
► Izarraitz Pilotalekuan.

Suzko erroberak.

► Zamorano Caballer su-etxearen eskutik festetako azkeneko suzko erroberak.
► 23:00etan.

Emanaldia.

► Bideo emanaldia.
► 23:00etan.
► Txosnetan.

Musika.

► Betagarri eta Ezinean.
► 23:30ean.
► Plazan.

Musika.

► Incansables txarangarekin kalejira.
► 06:00etan.

ABUZTUAK 2 (osteguna, San Inazio hirugarrena) ►

Sokamuturra.

► 07:00etan.
► Plazan.

Zezen aukeraketa.

► Arratsaldean toreatuko dituzten zezenen aukeraketa.
► 12:00etan.
► Zezen-plazan.

Zezenketa.

► Saninazioetako hirugarren eta azken zezenketa: Manuel Jesus *El Cid*, Jose Maria Manzanares eta Cayetano Rivera toreatzaileak.
► 18:00etan.
► Zezen-plazan.

Musika.

► Gau Erdi txarangaren kalejira.
► 19:30ean.
► Zezen-plazatik irtenda.

Musika.

► Disko jaialdia.
► 21:00etan.
► Plazan.

Festen bukaera.

► Suziriak eta danbatekoak.
► 22:00etan.
► Plazan. ◀

goñik badu-eta GANTXOA

Aspe enpresa Mikel Goñi saninazioetan Azpeitira jokatzera ekartzea aztertzen ari da. San Inazio bigarrenkoz jokatu luke, fisikoki ondo badago

▶ Testua: Enekoitz Esnaola

Jendearen artean zein pilotarik dauka gaur egun gantxorik handiena pilotan? Baliteke Mikel Goñik izatea. Eta Aspe enpresak hark Azpeitian jokatzeko nahi du, San Inazio bigarrenkoz, abuztuaren 1ean (Izarraitz, 22:30). Baldintza? Sasoian egotea.

Bi urte eta laurdenean droga arazoengatik-eta onenen paretik urruti egin ondoren, joan den ekainaren 24an itzuli zen Goñi, Eibarren. Harrezkero, erredakzio hau itxi arte –uztailaren 20an–, zortzi partidetatik sei irabazi zituen, eta pilotalekuetan ikusmina galanta. Hala, Aspek haren partidak bata bestearen atzetik jartzea erabaki du, eta uztailaren 22tik 31ra bitartean sei partida ipini zizkion. Haietako azkena San Inazio egunez, Zarautzen.

Goñi oraindik ere urrun dago duela sei-zazpi urteko pilotaritik baina, orain prestakuntza fisikoki berezitu badarama ere, Aspek jokatzeko jarri du. Saninazioetan Azpeitian? Hil honen bukaera aldera ikusiko da, ea nola dagoen Goñi fi-

sikoki. Lehen egona da Izarraitzen festetan jokatzeko.

▶ **ORDAGO.** 1996an egin zuen profesioaletan Goñik (1977, Oronoz), Tolosan, eta beti egon da polemika artean, bere bizitza pribatuagatik. Drogak arazo.

2005ean bazirudien bukatu


zela Goñi pilotaria, Aspe bidali egin zuelako, nazkatuta, etsita, aurretik osatze lan antzuak eginak zituelako. Ordago enpresan aritu da geroztik, frontoi galdue-tan, jendearen ikusmiratik urruti, "beste pilota mota bat ikusten", aitortu duenez. Ordagoa zuen: bai edo ez, osatu edo galdu.

Osatu egin da, itxuraz. "Oso hila-bete gogorak izan dira niretzat: entrenatu, jateari utzi, kirolari bizi-tza egin, baina merezi zuen", esan du Goñik.

Kirolari tiporik ez zuen urte hasieran, kasu. 112 kilo zen. Orain 90en bueltan dabil. "Ondo nago fisikoki. Pilota besterik ez dut bu-ruan. Garaiz iristen naiz entrena-menduetara-eta. Ahaztua dut gaua, eta ez naiz eroriko zulo be-rean berriro".

Ekainean onenen artera itzuli zenean, Astelena frontoia leporai-no. Berotzera irten zuenean, txalo-ka hartu zuten. Lasa III.aren jokatu zuen, Eugi-Laskurainen kontra. 22-17 galdu. Baina tanto onak eginda. Hamahiru tanto gal-duta ere bai; arriskatu egiten due-lako... eta oraindik falta zaiolako.

Ari da hartzen. "Beti bezala, ez-kerrarekin konfiantza handiagoa daukat. Neure arma nagusia da". Iruñean sanferminetan ere jokatu du (Goñi III.ak eta biek Leiza eta Argoteri 22-18 irabazi zieten) eta, huts ugari egin zuen arren, azke-nean berak erabaki zuen lehia. Bi errebote sartu zituen, bat ezke-rez. ◀



Mikel Goñi.



SAN INAZIORI TRATUA CONILEN...

Uztarriaren irakurle batek bidali dizkigu mezua eta argazkia: "Conil de la Frontera (Cadiz, Espainia) izan nintzen iaz oporretan eta, herri ertaina izateko (2006ko datuen arabera, 19.890 biztanle), harritzekoa da han zenbat kale dauden. Hasi Interneten bila eta 441!... eta asfaltatu gabe dagoen bakarretakoa, San Ignacio de Loyola kalea da. Hauxe, argazkikoa. Bitxikeria, besterik gabe, San Inazio festen bezpera hauetarako. Ah, zein da Azpeitiko Udaleko Turismo batzordeburua?...".

► Testua eta argazkia: Miren J. Larrañaga

Efemerideak ▶ abuztua



Urrestillako eliza. UROLA KOSTAKO HITZA

hamaika komeriko
HILABETEA

**Zekorketak, festak, lurrikarak, uholdeak...
gertaera ugari egon izan da abuztuan**

▶ Testuak: 'Azpeitiko efemerideak' liburua (Imanol Elias-Uztarria)

ABUZTUAK 1-1902 ▶

Azken zekorketa. Enparantza Nagusian altxatutako egurrezko zezen-plazan azken zekorketa egin zuten. Berriaren semeen zezenekin neurtu zen Tomas Alarcon *Mazzantinito* toreatzailea.

ABUZTUAK 4-1897 ▶

Eskolaratzea derrigorra. Se-meak eskolara bidaltzeko gurasoek zuten beharra gogorarazteko ahalegin guztia egiteko eskatu zioten alkateari.

ABUZTUAK 5-1907 ▶

Abiada murriztu. Autoek herriko kaleak abiada handian igarotzen zituztela-eta jasotako kexen aurrean, gobernadore zibilak kontu horren inguruan emandako aholkuak betearazteko agindu zion alkatetzak udaltzainei.

ABUZTUAK 14-1992 ▶

Marka berria. Joxe Apalantza lasterkariak Xoxote gailurrerako joan-etorria hobetu zuen, 45.09.075eko denbora eginda. Gailurrera 30.12an iritsi zen eta behera 15.58an jaitsi zen.



San Inazio.

ABUZTUAK 18-1997 ▶

Opera estreinaldia. *San Ignacio de Loyola* opera estreinatu zuten Loiolan.

ABUZTUAK 19-1712 ▶

Margo berriak. Iruñeko apezpi-kuak Urrestillako aldaire nagusiko hiru margoak egin eta ordularia jartzeko baimena eman zuen.

ABUZTUAK 30-1997 ▶

Lurrikara. 3,6 graduko lurrikara txikia sentitu zen herrian. Dena dela, lurrikarak ez zuen ondorio larririk eragin. ◀

Pertsonaia ▶

KULTURAN AITZINDARI.

Ildefonso Gurrutxaga 1902ko abuztuaren 23an jaio zen, Azpeitian. Zuzenbidean eta Gizarte Zientzietan lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean, eta herriko kultura eta udal bizitzan lan asko egin zuen. 1974ko abenduaren 3an hil zen Donostian.



Datua ▶

19**URTE ZEZEN TXOKOA IREKITA.**

Azpeitiko zezen-plaza azpian zezen txokoa dago eta 1988ko abuztuaren 2an inauguratu zuten. Elkarte gastronomiko izateaz gain, saninazioetako zezenketa egunetan herritarrentzat irekita egoten da zezenketen ingurukoak ikusteko: toreatzaile janzkerak, zezenak...

Argazkia ▶

**HERRIA UREZ GAINEZKA.**

1983ko abuztuan izugarritzko uholdeak izan ziren Azpeitian. Argazkia Loiola hiribide hasieran dago aterata. Gizonezko bat ageri da ura zeharkatzen, herritar talde bat begira duen bitartean. Uholdeek kalte ugari eragin zuten herriko denda, lokal eta autoetan.

Kontua da... ▶

Garai bateko zezenketak



Imanol Elias
Odriozola

Basilio Fernandez jaunak herri jaietarako zezenketak antolatzeko proposamena ontzat eman zuen Udalak 1857ko uztailaren 19an. Egitasmoa burutzeko, 1.250 erreal eta Enparantza Nagusiko balkoi eta leihoak uzteko eskatu zuen. Arratsalde bakoitzean larrabehe bat ateratzeko eskatu zion Udalak Fernandezi. Gainera, musikari, suziri eta gaueko sutzarren gastuak ere berak ordaintzeko eskatu zioten, lau errealeko sarreraren truke.

Gastu guztiak bere gain hartzea ezinezkoa zela adierazi zuen Fernandez jaunak. Horretarako, plaza eta leihoetako sarreraren prezioak handitzen uzteko eskatu zuen, 1849. urtean ezarritako tarifek aldatarik ez zutelako izan.

Uztailaren 20ko udalbatzarrean eztabaida gogorak izan ziren. Pedro Etxeberria erregidoreari prezioak zerbait altxatzea ondo iruditu zitzaion, hiru ze-

zenketa eskaini eta Nafarroako zezenak ekartzen zizutelako. Prezioaren laurden bat gehiago altxatzeko baimena ematea proposatu zuen Etxeberria jaunak eta sei agintarik harekin bat egin zuten. Bi bakarrik agertu ziren kontra; haietako bat Inazio Ibero alkatea zen. Hark, ordea, bozketa ezerezean utzi eta gobernadore zibilarik kontsulta egitea erabaki zuen.

Azkenik, uztailaren 27an egindako udalbatzarrean, Udalak erabaki zuen prezio berezi bat jartzea balkoi eta leihoetako urte hartako sarrerari. Prezio berria zehazteko, kontuan hartu zituzten 1849. urtean ontzat hartutako tarifa eta Etxeberria jaunak egindako proposamena. Gainera, alkatea, haren tenientea eta zinegotzi bat izendatu zituzten erabaki hori hartzeko.

Itxura guztien arabera, ez dirudi gaizki irten zuenik Fernandez jaunak, ondorengo urtean ere prest agertu baitzen zezenketak antolatzeko...

Garai bateko Azpeitia ▶ Vitoriano Camposek kontatua

bizipen ugariko GIZONA

Vitoriano Camposek 90 urtean aldaketa ugari bizi izan du herrian: gerra ondorena, enpresen gorakada, festak...

▶ Testua: Maider Zendoia

Vitoriano Campos (1916) *Ttantto*-k bizipen ugari bizi izan du 90 urtean. Tallista bezala hasi zen lanean, hamahiru urterekin, baina aitaren zaletasuna bere egin eta Bartzelonan igaro zituen gaztaroko urteak pilotan.

"Bartzelonan harrapatu ninduen Espainiako Gerrak eta hantxe egon nintzen guda bukatu arte". Handik Frantziara pasatu zen, baina itzulera auzitegitik deitu zioten, "Francorekin ez zerbizatu izana leporatuta". Mirandabroko (Espainia) kontzentrazio esparruan, Madrilan, eta Santiagon eta Ferrolen (Galizia) egon zen gero. Herrira itzuli zenean 28

urte zituen, eta Agirreanean hasi zen lanean. "Gerra ondoren gose galanta zegoen herrian eta, lana egon arren, soldadak kaskarrak ziren". 24 bat lagun elkartu ziren eta Aurrera Kooperatiba sortzea erabaki zuten. "Bakoitzak 50.000 pezeta jarri behar izan genituen; asko kostatu zitzaidan diru hura inguratzea".

Baltsean egitea debekatua zegoen; harrapatuz gero, kongregaziotik bidaltzen zintuzten"

VITORIANO CAMPOS ▶ erretiratua



Amuko zubia. UROLA KOSTAKO HITZA

Lehengo ohiturak eta oraingoak oso desberdinak direla uste du Camposek. "Gaztetan Amun bainatzen ginen, orduan dutxarik ez baitzen izaten etxeetan". Herriko emakumeek ere garbiketa kontuak etxetik kanpo egiten zizutela dio; udal garbitokian, hain zuzen. "Oraindik gogoan dut nola joaten ziren emakumeak buruan zinta jarrita Abitaingo albergara arropak garbitzera".

▶ **JAIK.** Herriko festek ere bila-kaera izan dutela uste du. "Garai batean jai handia ospatzen zen uztailaren 25ean Santiago kalean". Kontzertuak, zezenak eta postuzaleak biltzen ziren han.

Festetako pasadizo gehiago ere gogoan ditu. "Gazteak ginela, baltsean egitea debekatuta zegoen; harrapatuz gero, kongregaziotik bidaltzen zintuzten". Ildo horretan, familia arteko bati gertatutakoa ez zaio sekula ere ahaztuko. "Baltsean ari zela Ignazio Egaña alkateak ikusi egin zuen eta bandari agindu zion festa bertan behera uzteko". ◀



Hitz gezidunak ▶

▶ Egilea: Luma

	* IZENA ▼		Erasoa joaz ▼		Trebea, iaioa ▼		Abarrak ▼		Eguzkia
	Pasabide		Agian		Orezta		Indioaren ikurra		
	▶								
	Pl., musika tresna ▶								
	Lau zati bi								
* DEITURA ▼		Amerikako estatua ▶ ▼					Nori atzizkia ▶		
Amore eman		Fonetikaren banakoa					Musika nota		
▶			Detekta-gailua ▶						
			Militarren kolorea						
11 ▶			Kokaina ▶ ▼				Bizkaiko herria ▶		Pozik
Karrika			Intsektu mota				Barazki mota		
▶				Bokala ▶		Iodoa ▶ ▼	Errep., gorotza ▶		
				1. eta 4. bokalak		Garai	Hizki baten izena		
Nau ▶					Bihi ▶ ▼			50 ▶	
Izkribuen zerrenda					G birritan			Idi, hitz elkarketan	
▶									
Ipar Euskal Herrian, gona ▶				Emakume izena ▶					

* Azpeitiar burtzikari ohia


Hizki zopa ▶ aurkitu beheko irudietan ageri diren Loiola auzoko baserri izenak




H	O	I	G	L	A	T	O	N	I	O	K
I	A	T	E	U	S	O	R	R	E	B	E
T	A	P	I	R	R	I	U	N	U	A	N
X	E	B	E	A	M	A	A	T	I	R	A
O	I	G	O	Z	A	R	H	I	G	A	R
R	T	O	T	S	N	U	O	G	E	T	Z
G	U	S	A	N	D	I	Z	A	G	A	A
I	R	I	E	T	I	N	A	R	U	I	B
A	B	O	R	D	O	A	S	A	E	D	A
Z	I	U	R	I	L	E	G	B	A	P	L
A	D	S	E	E	A	O	A	E	S	M	A
G	E	B	T	I	T	N	Z	R	R	E	K
O	P	E	U	A	Z	I	D	R	O	R	A
S	E	L	D	R	A	O	G	I	T	O	E

Soluzioak ▶

HITZ GEZIDUNAK



HITZ GURUTZATUA



UZZARRIAREN UZTAILEKO ARGAZKI LEHIAKETA

zer dago gaizki?



Leihoa falta da



Oihana Aranbarri



Oihana Aranbarri Uztarriako bazkidea izan da argazki lehiaketako 86. irabazlea. **Nerea dendako** zerbitzua irabazi du sari gisa. Argazkian, Oihana Aranbarri –eskubian– eta Rosario Ibaieta, Nereaneko dendaria.

Zer dago gaizki?



ERANTZUTEKO EPEA ▶

Irailak 14 (ostirala)

NORA BIDALI ▶

Perez Arregi plaza 1, behea

AKATSA ADIERAZI ▶

ZURE IZENA / TELEFONOA ▶

IRABAZLEARI SARIA ▶

Naber dendako oparia

PARTE HARTZEKO

BALDINTZA ▶

Uztarran bazkide izan behar da



Lore Sortak
Koroiak
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
zerbitzua dugu



Tel. 943 81 51 87
Loiolabide, 25

Amenabar
DENDA

gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97



Arana, 5
AZPEITIA

ERLOJU
KONPONKETAK

Tel.: 943 81 47 12

KAITO TELEBISTA



81 53 35



domusa

Zaindu ▶ Talasemia

Julian
Bereziartua



Odoleko gaitza da talasemia. Oinordetzan jasotzen da eta odolak dituen osagarri garrantzitsuenei eragiten die: globulu gorriei. Globulu gorri edo hemati horiek oxigenoa gorputz osora garraiatzeko ardura dute eta, ondorioz, horiek gabe ezingo ginateke bizi.

Kantauri aldean baino kasu gehiago izaten dira Ekialdean. Igartzen ez diren kasuak ere badaude; izan ere, oso sinplea da gaitzaren kuadroa, ez baita sintomarik aurrez agertzen.

Zientzialariek gaixoari azterketak egitea aholkatzen dute, talasemia mota larria denean ondorengo belunaldiak kutsatzea saihesteko.

Kasu larriak jaio berrietan igartzen dira, eta garaiz egindako diagnostikoak hematologoek esku uzten dira, kontrola eta tratamendua egiteko.

Sendagileok gero eta garrantzi handiagoa ematen diegu oinordetzan jasotako eragileei. Izan ere, historiak argi erakutsi du arrazoi politikoengatik antolatutako ezkontzek eragindako gaixotasun genetikoek tamalezko ondorioak izaten dituztela.

Dena dela, desagertzeaz dagoen gaixotasuna da; sendakuntzak gauzak behar bezala egiten badi-tu, bederen. Ez ahaztu giza bizitza osasuntsua planeta honetako aberastasunik handiena dela.

IBAN KEREJETA ▶ zerbitzaria

Tragoa: kanpoan ala barruan?

Kanpoan nahiago.

Bezera ala zerbitzari?

Bezera.

Nolako kafea?

Edateko ebakia eta zerbitzatzeko hutsa.

Parrandak: egunekoak ala gauekoak?

Egunekoak.

Psikologia beharrezkoa al da barra atzerako?

Ez, baina pazientzia bai.

Gustuko edari bat?

San Miguela.

Eta baso bat?

Sagardoarena.

Kafe onaren sekretua?

Ez du sekretu handirik.

Festa bat?

Santotomasak.

Asteguna ala aste bukaera?

Aste bukaera.

Tabernan egoteko:

barra ala mahaia?

Barra nahiago.

▶ Testua eta argazkia: **Maider Zendoia**



Abizena ▶ Arriola

Armarria.

Zilarrezko hiru panela daude erdian eta esku-bialdetik ageri den beso armatuak ezpata bat du eskuan.

Banaketa semantikoa.

▶ Harri (arroka) izenak eta -ola (lekua) atzizkiak osatzen dute.

Esanahia.

Harritza edo sasitza esanahi du Arriola abizenak.

Abizenaren kokapena.

- ▶ Itziar.
- ▶ Donostia.
- ▶ Getaria.
- ▶ Usurbil.
- ▶ Elgoibar.
- ▶ Mutriku.
- ▶ Zeanuri.
- ▶ Iurreta.
- ▶ Leintz Gatzaga.

Abizenaren hedapena.

- ▶ Elorrio (1576 eta 1712).
- ▶ Arrasate (1748).
- ▶ Mutriku (1770).
- ▶ Elgoibar (1598).
- ▶ Aia (1714).
- ▶ Donostia (1666).
- ▶ Getaria (1723).



Esandakoa ▶

“Nire saileko erronka nagusia euskara da; arlo guztietan euskara indartsu egotea da helburua”

MARIA JESUS ARANBURU ▶

Euskara eta Kultura diputatua

“Iriartek dio Realaren lehen taldeak etxeko jokalarietan oinarritu behar duela; klub osoaren erronka da”

JUAN ANTONIO LARRAÑAGA ▶

Realeko harrobi zuzendaria

Zenbat ▶

445

KIDE JOLASEAN.

Uztailean Azpeitian izandako udaleku irekietan, hiru eta hamazazpi urte arteko 445 lagunek hartu dute parte.



Gertuko pasadizoa ▶

gertakarien berri EUSKARAZ

‘Euskarazko prentsa eta Azpeitia’ liburutik
hartua ▶ Argitaratzailea: Uztarria ▶ 2004
▶ Kapituluaren egilea: Oihana Elduaen

KAPITULUA ▶ Azkeneko mendearen lekuko azpeitiarrak (8. orrialdea)

“Azpeitiarrak leku guztietan daude”. Hala dio Iñaki Goenaga *Sistiya*, 99 urte dituen azpeitiarrak. Horregatik izango da, agian, munduan gertatzen denaren berri emateko azpeitiarrak duten joera. Kazetaritzaren historiari erreparatuz gero, zutari gehienetan aurki daiteke herriarren baten aztarna. Herri ertaina izateko (13.500 biztanle pasatxo gaur egun), kazetari ugariaren harrobia izan da Azpeitia. Ama hizkuntzaren izena agerian, euskaraz egin dute, gainera, beraien lana gehienek.

Garai desberdin ugari izan diren arren, kazetaritza lan hori euskaraz egitea ez

da erraza izan inoiz. Zentsuratik hasi eta egunkariak ixterainoko neurriak ezagutu ditu euskal kazetaritzak. Azpeitiarrak horren lekuko izan dira, eta lekukotasuna utzi dute.

Garai beretsukoak ziren Iñaki Azpiazu (1910-1988), Ildefonso Gurrutxaga (1902-1974), Jose Artetxe (1906-1971), Iñaki Goenaga (1904) eta Julian Elorza (1878-1964), eta zentsura, gerra eta erbestea beraien larrian bizi izan zituzten. Hala ere, garaiak eskaintzen zizkien euskal komunikabideei heldu, eta lan asko egin zuten haiek, hobetzen eta gidatzen.

Haien aurretik ere izan edo egin zen zerbait Azpeitian euskara idatziaren alorrean. Adibi-

dez, 1893. urtean Antoine d'Abbadie zientzialari eta euskaltzale zuberotarrak sortu eta antolatutako Euskal Jaiak ospatu ziren eta, besteak beste, literatur lehiaketak egin ziren. 1901. urtean, berriz, Euskal Festen XX. edizioa herrian izan zen, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta, eta edozein probintziko euskal hizkeran idatzitako lanak saritu ziren, gipuzkeraz idatzitakoak ere bai... Euskara idatzia, beraz.

Azpiazu, Gurrutxaga eta haien garaira ituliz, haietako askoren izenak ageri dira 1923ko San Inazio egunean argitaratu zen *Urola* aldizkariaren 1. zenbakian.

Eskualdeko aldizkaria zen –batik bat, azpeitiko berri zekarren–, eta honako asmoa zuen: *“En la modesta esfera de nuestras pretensiones, carecemos de ideario político; en nuestras convencionales salidas defenderemos lo que todo vascongado ha de defender por exigirlo así sus antecedentes históricos y su peculiar forma de ser; la religión y la moral más estricta encontrarán en nosotros defensores a carta cabal. En los otros aspectos de la vida social, nuestra norma será estimular todo factor positivo en la lucha del vivir individual y colectivo, siempre que sean compatibles con la anterior afirmación”.* ◀

Euskarazko prentsa
eta Azpeitia




PILDAIN
Inmobiliaria
www.pildain.com
Harzubia 6, behea
Tl. 943812167 - Fax: 943150774
e-mail: inmobiliaria@pildain.com



ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK
Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA


Olamendi
Butxi Denda
Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49


Ekain
Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Larrialdiak:
943 15 16 40


AIZPURU AUTOAK
Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net


KIRURI
JATETXEA
Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62


LUBA
- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA
Enparan kalea, 45
Tel.: 943 15 75 25 - Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO
MARGOAK
Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Telefono zenbakiak ▶

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulategia	02 54 00
Anbul.-larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 71 94
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztartaria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara (Jendartea)	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	943 15 09 94

LARRIALDIAK

112

Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriema)	81 26 32

Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

EAE-ANV	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztartaria Kultur Koor.	15 03 58

Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbia.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	665 72 39 79 / 943 08 06 88

Farmaziak gauez ▶ abuztua

1-14-16-18-19-28

Aranburu (Azpeitia).
943 81 13 50

2-4-5

Jacome (Azpeitia).
943 08 02 58

3

Alberdi (Azpeitia).
943 81 59 74

13-15-17-27-29


Garcia (Azpeitia).
943 81 12 74

6-9-11-12-21-22

Jaen (Azkoitia).
943 85 06 60

7-8-10-20-23-25

Gisasola (Azkoitia).
943 85 12 35



Ateak zabalik ▶

UDALETXEA

▶ Asteguna:	09:00-13:30
▶ Larunbata:	itxita

UDALTZAINGOA

▶ Egun osoz irekita egoten da

ANBULATEGIA

▶ Egun osoz irekita egoten da

IGERILEKUA

▶ Astelehena:	09:00-13:00 (1-15 itxita)
▶ Beste astegunak:	09:00-13:00 (1-15 itxita)
▶ Larunbata:	09:00-13:00 (1-15 itxita)
▶ Jai egunak:	09:00-13:00 (1-15 itxita)

▶ Kanpoko igerilekua:	11:00-20:00
-----------------------	-------------

KIROLDEGIA

▶ Astegunak:	itxita
▶ Larunbata:	itxita

UDAL LIBURUTEGIA

▶ Astegunak:	08:30-13:30 (1-15 itxita)
▶ Larunbata:	itxita

ZAPOTXOKO

▶ Asteartea-ostirala:	08:30-13:30 (1-15 itxita)
▶ Larunbata:	itxita

MULTIMEDIA ZERBITZUA ABIAN LIBURUTEGIAN.

Azpeitiko Udal Liburutegiko multimedia zerbitzuari esker, maileguan har daitezke CD, DVD, CDR eta entzuteko liburuak. Liburutegiko bazkide txartela edo liburutegi artekoa izatea nahikoa da horretarako. Material berezi horien mailegualdia zazpi eguneko da.

Garraioa ▶ (autobusen ordutegia: www.uztarria.com/azpeitia/autobusak)

ALDALUR

85 27 18

EUSKO TREN

902 54 32 10

GUIPUZCOANA

85 11 59

PESA

21 26 99

PIPER ELK.

85 25 87

TAXIAK

81 13 07

EUSKARA



ERE GI

EUSKARA ETA KOMUNIKAZIOA



- Itzulpenak.
- Euskara planak:
 - Bai Euskarari Akordioa herrietan garatzeko eta zabaltzeko zerbitzua.
 - Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) herrietan gauzatzeko laguntza eta aholkularitza teknikoa.

KOMUNIKAZIOA

- Irudi korporatiboa osoa lantzen dugu:
 - anagrama eta logotipoa.
 - katalogoak, diptikoak, kartelak, aldizkariak...
 - papertegia: orriak, gutun azalak, txartelak...
 - seinaletika: errotiluak, panelak...

zure zerbitzura
gaituztu!



goiko kale 5, 3A
tel.: 943 08 06 88
20730 azpeitia (gipuzkoa)
e-posta: eregi@eregi.net

ONDOR PASATU FESTAK!

Koh Tao

OSAGARRIAK

Foru'lbilbidea, 3
Tel.: 629 688 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

ORDULARI

Jose de Artxe, 10
Tel. 943 81 52 44
20730 AZPEITIA

ORKATZ KULTUR ELKARTEA

Erdi Kalea, 24

Larrañaga
kirolak

Arana kalea, 3
Tel.: 943 8113 65

UDA HONETAN JANTZI ZAITEZ HITZAZ

ATERKIAK

ELASTIKOAK 12€

Hainbat modelo eta kolore neska nahiz mutilentzat

GERRIKO POLTSA 18€

Zatoz zurearen bila!
Zarauzko eta Azpeitiko egoitzetara

18€

L. Navarri
ESTETIKA ZENTROA
ETA LURRINDEGIA

ABUZTUAN GOIZEZ ZABALIK

Eliz kale, 44
Tel 943 81 19 32
20730 Azpeitia Gipuzkoa

Garai
gizonezkoen ileapaindegia

Abuztuaren 13tik aurrera goizez zabalik

erparan kalea 35
azpeitia
tel 943 157 010

TRAPOS DECORACIÓN

japoniar panelak
funda nordikoak
koltxak
kortinak
kortinoiak
estoreak

Santiago kalea 5
Tel. / faxa: 943 150 020

aanare
ile-apaindegia

Barrenetxe, 7
943151553 • azpeitia

bide

bide
sukaldeak

Tel-Fax : 943 811747
Garmendipe kalea 7
Landeta Auzoa
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
bidesukaldeak@terra.es




SAN INAZIO JAIZORIENTSUA!

PATXI ALDALUR ▶ kale-garbigailuko gidaria

“Lan karga handiena saninazioetan izaten dugu”

▶ Testuak eta argazkiak: Maider Zendoia



TXIKITAKO AMETSA.

“Kamioia gidatzea gustatu izan zait betitik”, dio Patxi Aldalurrek. Zazpi urtez izan zen kamioilari, eta enpresak ateak itxi zituenean esan zion adio bokazioari. “Kale-garbigailua kamioia baino txikiagoa da, baina maneiatzeko konplexuagoa”. Horretan dihardu 21 urtean.

Patxi Aldalurrek (1946) 21 urte daramatza Azpeitiko kaleak garbitzen udal lan-gile bezala. Saninazioetan gogor lan egin beharko du.

Noiz hasi zinen Azpeitiko kaleak garbitzen?

1984an hasi nintzen udaletxean lanean, eta bi urtera ekin nion kaleak garbitzeari. Beraz, 21 urte daramatzat lan honetan.

Hasi zineneko eta gaur egungo egoera desberdinak al dira?

Orain hogeitaz urte kalean zakar gehiago egoten zen. Garai batean, jendeak ostiral gauean irtezen zuen kalera eta, ondorioz, larunbat goizetan zakar asko pila-tzen zen. Gero gau hori larunbatera pasatu zen. Hala ere, gaur egun igande goizetan ez da horrenbeste zikin egoten.

Festetan zikinkeria-aren gorakada handia nabari al duzu?

Bai, baina horrek ere urteotan behera egin duela esango nuke.

Lan errutina asko aldatzen al duzue jai egunetan?

Lanegunetan hamar pertsona ibiltzen bagara lanean, festetan hogeitik gora aritzen gara.

Zuretzat zein da egutegiko egunik txarrena?

Karnabaletan lan asko egoten da, baina lan karga handiena saninazioetan izaten dugu.

Gauza bitxirik aurkitu al duzu?

Orain dela bi urte dirua eta agiriak zituen diru-zorroa aurkitu genuen. Poz handia eman genion jabeari. Dena dela, lehen aldean diru gutxi topatzen dugu orain lurrean.

Azpeitiarrak zikinak al gara?

Ez dakit bada zer esan! Denetarikoa jendea dago; orokorrean pixka bat hobetu da egoera, baina oraindik ere badago zer hobetu.

Kalearen ondoren, etxea txukuntzea tokatzen al zaizu?

Laguntzen dut, baina festetan pott eginda egoten naiz eta ez dut ezer asko egiten. ◀



Azpeitian Bai Euskarari Ziurtagiria duten eragile batzuk, uztailaren 5ean Enparan Dorretxean, banaketa ekitaldian.

lankidetzaren BEHARRA

Kontseiluak eta Uztarriak Azpeitiko Udalari euskararen normalizazio prozesuan elkarrekin lan egiteko dei egin diote berriz ere

► Testuak eta argazkiak: Ane Aranburu

Azpeitiko Udalak eta Uztarria Kultur Koordinakundeak-Kontseiluak 2004ko martxoan euskararen normalizaziorako hitzarmena sinatu zuten, elkarrekin egiteko lana, baina akordio hura hautsi egin zen 2005 hasieran, desa-

dostasunak medio. Harrezkero, Uztarria saiatu izan da hitzarmen berria egiten, beste proposamen bat eginez, Kontseiluak ere azpimarratu izan du elkarlanaren beharra, baina ez da posible izan.

Uztarriak eta Kontseiluak berriro atera dute gaia, uztailan Az-

peitiko enpresa, denda eta entitateek Bai Euskarari Ziurtagiria jasotzeko banaketa ekitaldia egin zela-eta. Xabier Mendiguren Kontseiluaren idazkari nagusiak dio "Azpeitiko Udalarekin berriro elkarlana lortzea" izango dela aurrera begirako helburuetako bat.

"Euskalduntasun handiko herria da Azpeitia. Euskalgintzak, oro har, oso ondo lan egiten du. Euskararen normalizazioaren aldeko lan hori herri osora zabaltzeko Udalarekin hartu-eman egokia beharko genuke". Prozesua ahalik eta eraginkorrena izan dadin, "eragile guztien elkarlana beharrezkoa" dela uste du Mendigurenek, eta beste herrietan, "Udalean edozein dagoela ere, euskararen gaian prest dagoen edozein alderdirekin hitzarmenak" egiten dituztela nabarmendu du. "Instituzioek, euskalgintzak eta herri mugimenduak elkar hartuta lan egin behar dugu gai honetan".

► **NAZIONALA.** Iritzi berekoa da Uztarria. "Bada garaia Azpeitian euskararen normalizaziorako plan bateratua izateko", diote Mikel Arregi Uztarriaren Euskara taldeko kideak. Horretarako beharrezkoa deritzo Udala, euskalgintza eta gizarte eragileak batera aritzea. Horrez gain, Uztarriak "ezinbestekoa" dela uste du normalizazio planetan hasten diren eragileei "ziurtagiri bakarra" eskaintzea: Bai Euskarari Ziurtagiria. "Izan ere, euskararen normalizazioa nazio mailako helburua da eta Bai Euskarari Ziurtagiria da nazio izaera duen ziurtagiri bakarra, euskalgintza eta Udala batera aritzea bermatzen duen nazio ziurtagiria". Udalak bere agiri propioa dauka: Hebe.

Azpeitian Bai Euskarari Akordioari 2003an ekin zioten Uztarriak eta Kontseiluak, eta gaur egun herrian 38 eragilek daukate ziurtagiri hori.

Uztarriak jakin duenez, Udala orain Euskara Batzordean normalizazioaren gaia aztertzen ari bada ere, Bai Euskarari Ziurtagiriaren proiektuari heldu egingo dio. Hain zuzen, aurtengo banaketa ekitaldian izan zen Iñaki Errazkin alkatea.

Bota lasai ▶ (www.uztarria.com/euskara)

Euskarara aldatzeko garaia noiz?

I Herriko hainbat behebarritan jarri dituzten iragarkietan, kaldera zaharra aldatzeko garaia dela diote egileek. Baina euskara arrastorik ez dago euren karteletan. Beraientzako ere bada gaztelera hutsa erabiltzeari utzi eta euskarara aldatzeko garaia!

▶ Jone

Lasai, lasai...

Hasi du Realak denboraldi-aurrea, entrenatzaile berria dauka (Chris Coleman galestarra) eta Juan Antonio Larrañaga Realaren harrobiaren zuzendariak esan du Colemanek hasieran izango dituela arazo batzuk, "gaztelera ez duelako menperatzen".

Ikusten dugu: Colemanek hemen ez du behar euskara, eta euskaldunok —sinbolikoki ere— ez dioguesaten hori behar duenik.

Hori bai, Colemanek gero John Toshack herrikideak hemengo orain hogeitau urte inguruko garai haietan bezala "lasai, lasai" bat edo antzeko bat botako du igual, eta "Galesko euskalduna" deituko diogu.

▶ Iñaki Odriozola

Zorionak 'Danbolin'-i!

Iazko martxoan ETak su-etena eman zuenean, Jesus Egiguren PSE-EEren presidentearen izena hitzetik hortzera erabili zuten askok, erakunde armatuarekin izandako harre-

manetan bera izan zelakoan Espainiako Gobernuaren ordezkari. *El Diario Vasco* erdal egunkaria baizik ez zen izan orduan Egigureni elkarrizketa egin ziona, honek eskaerak ugari izan zituen arren.

Orain, ETak su-etena bukatu duenean, euskarazko herri aldizkari batek egin dio elkarrizketa hari: Zestoakoak, *Danbolin*-ek (*Urola Kostako Hitza*-k jaso du elkarrizketa webean). Beste inork ez dio egin, orain ere eskaerak itxuragabe izan arren.

Horrela (ere) hartzen du balioa, prestigioa euskarazko kazetari-tzak.

Zorionak *Danbolin*-ekoei, Urola Kostako Hitza proiektuan Uztarriaren bazkide diren lagunei.

▶ Enekoitz Esnaola

Festa hauetarako

Azkeneko egunetan han eta hemen irakurritakoak dira hauek:

Bilbainaden lehiaketan euskarak izan du lekurik: sari propioa.

Amaia Montero eta Mikel Eren-txun erdal abeslariak *Lau teilatu*-ren bertsioa kantatu dute, elkarrekin lehen aldiz. Euskaraz, jakina.

Euskalsex Areto Erotikoa antolatu dute Bilbon, eta horrek "euskararen erabilera sustatzeko" balio duela diote, praktika behar dela eta euskararen normalizazioa "aitzakia" dela. Haiena plana.

Aibadio!

Saninazio euskaldunagoak lortzeko aukerak hortxe...

▶ Anam

KORO ALBERDI ▶ Ongi Etorri jatetxeko arduraduna eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren jabea

“Kontzientzia handiagoa falta zaigu normalizaziorako”

Bai Euskarari Ziurtagiriaren banaketa ekital-dira Azpeitiko denda, enpresa eta erakundeetako ordezkariak agertu ziren. Guztiek euskararen normalizazioaren aldeko lana atxikitzen diote euren eguneroko lanari. Koro Alberdi Ongi Etorri jatetxeko arduraduna da eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren eragilea duela urte batzuetatik. Euskararen normalizazioari buruz, oraindik jendea gehiegi kontzientziatu gabe dagoela uste du.

Zer dela-eta hasi zinen Bai Euskarari Ziurtagiriarekin?

Duela hiruzpalau urte egin ziguten Bai Euskarari prozesuan sartzeko eskaintza eta orduan eman zidaten Bai Euskarari Ziurtagiriaren proiektuaren berri. Animatu eta egitasmoan sartu nintzen.

Zer konpromiso hartu zenituen?

Nik ostalaritzan egiten dut lana eta makina erregistratzailean egiten ditut faktura gehienak. Makina gaztelera dut orain, baina euska-



“Duela hiruzpalau urte eman zidaten Bai Euskarari Ziurtagiriaren proiektuaren berri eta animatu egin nintzen”

rara aldatzeko eskatuta daukat. Beraz, laster euskaraz inprimatuko ditut fakturak eta beste-lakoak.

Gainerakoan, zerbitzua euskaraz ematen al duzue?

Oro har, bai. Zerbitzua euskaraz eskaintzen dugu baina, bezeroak gaztelera eskatuz gero, gaztelera egin behar. Gainerakoan, hornitzaileekin ere euskaraz hitz egiten dut eta horietako batzuk euren fakturak euskaraz ekartzen dizkidate, gainera.

Oztoporik nabaritzen al duzu egunerokoa zerbitzua euskaraz bermatzeko?

Ez dut inolako oztoporik nabaritzen egunerokoa euskaraz egiteko. Ingurune euskaldunean bizi gara Azpeitian, komertzialekin ere euskaraz aritzen naiz. Eguneroko kontuetarako erabiltzen dut euskara; hornitzaileei euskaraz eskatzen dizkiet produktuak, haiek niri ere euskaraz erantzuten didate...

Bezeroek ahalegin hori aintzat hartzen al dute?

Nire ustez, inor gutxik egiten dio kasu ziurtagiriari izateari. Jendea gutxi kontzientziatuta dago horren inguruan. Kontzientzia handiagoa hartzea falta zaigu normalizaziorako. ◀

Euskararen gorabeherak ▶



GORA. Obren arriskuez ere euskaraz, jakina!

Hartzubia kalean egiten ari diren obretan, argazkian ageri diren argibideak euskaraz jarri dituzte. Euskarari ez zaio-eta eman behar bestelako lanik.



BEHERA. Euskarak oztopatzen ote dio irteera?

Itxura denez, euskarak oztopatzen du kamioien irteera Hartzubiko lanetan. Kamioiek irten dezaketela ohartarazteko ez da beharrezkoa gaztelerara jotzea.



Euskararen eskubideen urraketak salatze / bideratzeko ▶

Behatokia 902 19 43 32

Elebide 012

www.euskararentelefonoa.com

www.euskadi.net/elebide

Zer egin? ▶

“Euskaraz dakitenei euskaraz hitz egin dezaten eragin eta ez dakitenei euskaltegian euskara ikastera animatu”

Euskal Herrian Euskararen 'Bideak' eskuliburutik hartua; Uztarrin dago edonoren eskura

Komikia ▶

Euskalduna

▶ Andoni Salegi



pose euskalduna



algara euskalduna



giltzurdin euskalduna



pentsamendu euskalduna



piñu euskalduna



mingain kastellanua

Lasao

• altzariak neurrira

Lasao Industrialdea z/g
Tel. 943151182



altzari bereziak
zu ere berezia zarelako

www.lasao.com

Urola Autoeskola

Bustinzuriko Errebala, 3 atzea

Azpeitia Tel: 943 812666

Ziklomotor lizentzia eta
gidabaimen guztiak



Ondo pasau
Saninazioak

Ondo pasatu festak!



SERRERIA LARRAÑAGA, S.L.

Oñatz Bidea, z/g

Tels.: 943 81 46 28 - 943 81 60 71

Fax: 943 81 68 66

www.serrerialarranaga.com

E-mail: info@serrerialarranaga.com

20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

